



HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIAKO SAILBURU JAUNA

Euskadiko Aholku Batzordearen Osoko Bilkurak **Euskal sektore publikoaren antolamendu eta funtzionamenduari buruzko Legearen aurreproiektuari buruzko (Erref.: DNCG_LEY_64400/2015_02) zure kontsulta** aztertu du (135/2015 zenbakipean erregistratua), 2015eko irailaren 23ko bileran, alboan adierazten diren kideak bertaratuta.

Gaia hausnartu, eta aho batez eman du irizpen hau. Zubizarreta Arteche batzordekide jaunak adierazi du Batzordearen iritzia.

BATZORDEBURUA:

Sabino Torre Díez jauna.

BATZORDEBURUORDEA:

Xabier Unanue Ortega jauna

KIDEAK:

Maria Teresa Astigarraga Goenaga andrea.
Luis M^a Eskubi Juaristi jauna.
Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna.
Fátima Saiz Ruiz de Loizaga andrea
Gorka Erlantz Zorrozuza Aierbe jauna.
Imanol Zubizarreta Arteche jauna.
Ion Gurutz Echave Aranzabal jauna.
Iñaki Calonge Crespo jauna.


IDAZKARIA:

Jesús M^a Alonso Quilchano jauna.


128/2015 IRIZPENA

AURREKARIAK

1. Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak 2015eko irailaren 3an emandako Aginduaren bidez, batzorde honi helarazi zitzaion aipatu egun horretan bertan izenburuko legearen aurreproiektua.
2. Batzordeburuak urgentetzat jo du kontsulta, 2015eko irailaren 7ko ebazpen bidez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 2004ko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 9.1.d) artikuluan oinarrituta.
3. Bidalitako espedientearen barruan, aurreproiektuaren beraren testuaz eta jakinarazpen-egintzez gain, honako hauek ageri dira:



- a) Agindua, 2015eko ekainaren 8koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera ematen diona.
- b) Agindua, 2015eko ekainaren 23koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, aurreproiektuari alde aurreko onarpena ematekoa.
- c) EAEko administrazio publikoari buruzko lege-aurreproiektuko administrazio-kargen murrizketaren gaineko txostena.
- d) Aurreproiektuaren memoria ekonomikoa, 2015eko ekainaren 25ekoa.
- e) Justifikazioko memoria, 2015eko ekainaren 25ekoa, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendariak sinatua.
- f) Ebazpena, 2015eko ekainaren 25ekoa, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendariarena, lege-aurreproiektua jendaurrean jartzekoa.
- g) Generoaren araberako eragin-txostena, Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektua egitean prestatua eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendariak sinatua.
- h) Lan Harremanen Kontseiluko idazkari nagusiaren idazkia, 2015eko uztailaren 3koa, kontseiluak aurreproiekturako ekarpenik ez duela esaten duena.
- i) Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak egindako antolaketa-txostena.
- j) Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena, 2015eko uztailakoa.
- k) Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren idazkia, aurreproiektuari buruz alegaziorik ez duela egingo jakinarazten duena.
- l) Lehendakartzaren Idazkaritza Nagusiko Koordinazio Zuzendaritzaren txostena.
- m) Emakunderen txostena, 2015eko uztailaren 17koa.
- n) Ogasun eta Finantza Sailak aurreproiektuaz egindako alegazio-idazkia, 2015eko uztailaren 17koa.
- o) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena (euskarazko bertsioa).




- p) Aurreproiektuaren izapideari buruzko memoria osagarria, Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarena, 2015eko uztailaren 29koa.
 - q) Kontsulta egin duen saileko Zerbitzu Zuzendaritzako aholkularitza juridikoak egindako txosten juridikoa.
 - r) Aurreproiektuaren izapideari buruzko bigarren memoria osagarria, Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarena, 2015eko irailaren 2koa.
4. 2015eko irailaren 7an dokumentazio osagarria jaso zen:
- a) CCOO sindikatuko Ekintza Sindikal eta Instituzionaleko Idazkaritzaren idazkia, 2015eko uztailaren 17an aurkeztua, aipatu sindikatuaren alegazioak erantsita.
 - b) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena (gaztelaniazko bertsioa).
 - c) IVApek aurreproiektuaren testuaz egindako ohar-idazkia, 2015eko uztailaren 28koa.
 - d) Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egindako txostena, 2015eko uztailaren 24koa.
5. Azkenik, 2015eko irailaren 8an, Ekonomiaren eta Arauen Kontroleko Bulegoaren txostena jaso da (2015eko uztailaren 31koa), dokumentazio osagarri gisa.

BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA

6. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 2004ko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1 artikulua betez ematen da irizpen hau; izan ere, artikulua horren a) letran, Batzordearen aholkulari funtzioaren esparruan, berariaz aipatzen dira “Legearen aurreproiektuak, edozein izanik ere haietako gai eta helburuak”.

AURREPROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

7. Helarazi zaigun lege-aurreproiektuaren xedea da EAEko administrazio publikoaren antolamendu eta funtzionamendua arautzea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren barruan dauden erakunde guztiak ere barnean hartuta. Era berean, EAEko sektore publikoa osatzen duten oinarritzko elementuak zein diren zehaztu nahi du, zeinen artean autonomia-erkidegoko foru- eta toki-sektoreak ere sartuta baitaude.
8. Honako zati hauek ditu: zioen azalpena; 80 artikulua, bost titulutan banatuta; xedapen gehigarri bat; xedapen iragankor bat; xedapen indargabetzaile bat, eta hiru azken xedapen.



9. Zioen azalpenean, lehenik eta behin, aipatzen da zer legegintza-hautu jorratu nahi den proiektuaren bidez: sektore publikoaren arloan berez lotuta dauden beharrian guztiak jasotzen ahalegintzea, eta, hartara, koherentzia ekarriko duen erreferentziazko testu bat eskaintzea.
10. Kontua ez da, esaten dute, dagoen araudi guztia testu bakar batean kodetzea, baina erreferentziako lege bat izatea, EAEko administrazioaren zeregina diziplinatzen duten arau guztiak antola ditzan, bi helbururekin antolatu ere: Euskadin dagoen legedi zabalak sortzen dituen disfuntzioak eta kontraesanak murriztea, alde batetik, eta, bestetik, herritarrek *res pública* delakoaz duten pertzepzioari buruz eztabaidatzera premiatzea, eta, horrenbestez, egungo garaioak eskatzen dituzten paradigma berrietan oinarritutako kultura administratibo berria sortzen laguntzea.
11. I. tituluaren izenburua “Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa eta euskal sektore publikoaren integrazio eta dimentsionamendua” da, eta bi kapitulutan banatutako zazpi artikulua ditu.
12. I. kapituluak xedapen orokorrak biltzen ditu. Legearen xedeari buruzkoa da lehen artikulua, helburuei buruzkoa bigarrena, eta aplikazio-eremuari buruzkoa hirugarrena. Azken horretan, titulu honetako II. kapituluko printzipioak EAEko sektore publiko osoari aplikatzea da nabarmentzekoa. Antolaketari hertsiki lotutako aurreikuspenak, betiere kasu bakoitzean erabakitzen den moduan, honako hauei aplikatzen zaizkie: Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrari, EAEko sektore publikoari, partaidetutako erakunde eta enpresei eta sorrerako arauak hala xedatuta daukaten beste erakunde publiko batzuei.
13. II. kapitulua euskal sektore publikoari buruzkoa da. EAEko sektore publikoaren perimetroa 4. artikuluan xedatuta dago, eta nolabait kontrol publikoaren mende dauden administrazio, instituzio edo erakunde guztiak biltzen ditu. Bestalde, 5. artikulua EAEko sektore publikoko subjektu guztien jarduera-printzipioak xedatzen ditu, bai eta administrazio publikoen arteko administrazio-lankidetzaren printzipioa aplikatzearen ondorioz sortzen diren betebeharrak ere. Geroago, 6. artikulua erakunde berriak sortzeko edo sortuta daudenetan parte hartzeko aplikatu daitezkeen printzipioak xedatzen ditu: administrazioaren nortasun juridikoaren batasunari lehentasuna emateko printzipioa eta subsidiarotasun-printzipioa. Azkenik, 7. artikulua EAEko sektore publikoa arrazionalizatzeko eta dimentsionatzeko erakundearteko batzordea sortzen du.
14. II. tituluaren izenburua hau da: “Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren erakunde-antolamendua”. Lau kapitulu ditu.




15. I. kapitulua erakundeen tipologia eta sailkapenari buruzkoa da. Administrazio orokorra eta instituzionala zehazten ditu, beraien artean hauek sartuta: erakunde autonomoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak (8. artikulua); eta sektore publikoari atxikitako edo lotutako erakunde instrumentalak (9. artikulua): sozietateak, fundazioak edo administrazio-partzuergoak. Administrazio independenteari buruzkoa da 10. artikulua, beren zereginetan, Administrazio Orokorrari dagokionez, independentzia edo autonomia berezia izatea premiazkoa duten kide anitzeko organoak edo erakundeak sortzen direnean.
16. II. kapituluaren izena hau da: “Administrazio Orokorraren Egitura eta Antolamendua”. Administrazioaren antolamendu- eta funtzionamendu-printzipioak zehazten ditu (11. artikulua) eta Administrazio Orokorraren definitzen du (12. artikulua). Goi-organoak zehazten ditu 13. artikulua, eta autonomia-erkidegoko goi-kargudunak zedarritzen ahalegintzen da. Bestalde, 14. artikulua autonomia-erkidegoko sektore publikoko zuzendaritza-organoei buruzkoa da. Administrazio Orokorraren sailari buruzkoa da 15. artikulua, eta, sailak sortu, aldatu, elkartu eta ezabatzeak, Jaurilaritzaari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea (Gobernu Legea) xedatura jotzen du. Egitura organiko eta funtzionalei buruzkoa da 16. artikulua, eta egiturazko dekretuak aipatzen ditu. Beren jardura lurraldearen ikuspuntutik modu deszentralizatuan organo periferikoen bidez garatzeko aukera ere jasotzen du. Euskadik autonomia-erkidegotik kanpo dituen ordezkariak bidez jarduteko aukera aurreikusten du 17. artikulua, beharrezkoa bada Administrazio Orokorraren berezko eskumenen garapenaren ondorioz. Hurrengo artikuluen izenburua, 18. artikulua, “Kide anitzeko organoak” da, eta aholkularitza- edo partaidetza-funtzioak betetzeko kide anitzeko organoak sortzea aurreikusten du. Kudeaketa-memoria bat idazteko eta kontuak publikoki emateko betebeharrak nabarmentzen da. Hurrengo artikulua, 19. artikulua, politika publikoari buruzko eztabaidak edo proposamenak egiteko “herriarrek eta elkarrekin parte hartzeak gune egonkorak” arautzen ditu. Azkenik, 20. eta 21. artikulua administrazio-organoei eta administrazio-unitatei buruzkoak dira hurrenez hurren, organo eta unitate horiek zentzu klasikoan hartuta betiere.
17. III. kapitulua lehiari buruzkoa da, eta honako hauek bereizita arautzen ditu: printzipio orokorrak (22. artikulua); eskumenen deskontzentrazioa (23. artikulua); zerbitzuko jarraibide, zirkular eta aginduak (24. artikulua); eskumenak eskuordetzea (25. artikulua); sinadura eskuordetzea (26. artikulua); kargudunak ordezteak (27. artikulua); goragokoak eskumena bereganatzea (28. artikulua); kudeaketa-gomendio intrasubjektiboa (29. artikulua); eta kudeaketa bateratuko zentroak, zeinak izapidetzeko konplexuak diren edo eragin ekonomiko edo sozial handia duten prozesuak modu bateratuan kudeatzeko era daitezkeen administrazio-organoak baitira (30. artikulua).



18. IV. kapituluari “Administrazioen arteko lankidetza eta koordinazioa” deritzo, eta zortzi artikulua ditu. Lehenengoan, administrazio publikoek elkarri laguntzeko duten betebeharra aintzatesten da, hala nola erakundeen arteko lankidetza- eta leialtasun-printzipioak (31. artikulua). Lankidetza ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa aurreikusten du autonomia-erkidegoko administrazio orokor eta instituzionalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen, foru-organoen, toki-erakundeen nahiz beste administrazio batzuen artean (32. artikulua). Gainerako administrazio publikoekin lankidetza-hitzaumenak izenpetzeko baldintzak ezartzen ditu, eta, hitzaumenen barruan, protokolo orokorrak zehazten (33. artikulua). Era berean, lankidetza-tresna moduan, kontuan hartzen ditu jarduera-plan bateratuak, zeinetan konpromisoak hitzaumen batean adieraziko baitira (34. artikulua), administrazioek funtzioak foru-aldundiei eta toki-erakundeei eskuordetzan ematea (35. artikulua), funtzioak EAEko sektore publikoko erakunde instrumentalen edo zuzenbide publikoko korporazioen esku uztea (36. artikulua), eta kudeaketa-gomendio intersubjektiboa, administrazio publikoen eta erakunde publikoen artekoa (37. artikulua) eta beste erakunde batzuei uztekoa (38. artikulua).
19. III. tituluaren izena “Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren osaera” da, eta administrazio instituzionala eta sektore publikoa osatzen dituzten erakundeen definizioa eta tipologia jasotzen ditu, hala nola erakunde horien eta autonomia-erkidegoko administrazio orokorraren arteko harremanak. Bi kapitulutuan dago banatuta.
20. I. kapitulua erakunde horien araubide juridikoari buruzkoa da, eta bost artikulua ditu. Bereizita jasotzen dira autonomia-erkidegoko administrazio instituzionala eta sektore publikoa osatzen dituzten erakundeak: erakunde autonomoak (39. artikulua) eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak (40. artikulua) hala nola kapital-sozietateak, sektore publikoko fundazioak eta partzuergoak (41., 42. eta 43. artikulua).
21. II. kapituluak erakunde horiek eratzeko, eraldatzeko eta azkentzeko araubidea jasotzen du. Erakundeak eratzeko prozedura orokorra aurreikusten du 44. artikulua, eta asmoa da erakunde horien beharra edo komenigarritasuna bermatuta gelditzea, bai lege bat beharrezkoa bada, administrazio instituzionaleko erakundeen kasurako, bai dekretu baten premia badago, autonomia-erkidegoko sektore publikoko gainerako erakundeetarako (44. artikulua). Geroago, administrazio instituzionala osatzen duten erakundeen eraketa, eraldaketa eta azkentzea aipatzen dira, eta beraiek sortzeko legearen gutxieneko edukia ezartzen (45. artikulua). Era berean, zehazki eta bereizita aipatzen dira sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeak osatzeko arauak – kapital-sozietateak, sektore publikoko fundazioak eta partzuergoak (46., 47. eta 48. artikulua).



22. IV. tituluaren izena hau da: “Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren antolamendua eta eraldaketa”. Lau kapitulu ditu.
23. I. kapitulua Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoaren antolamendua arautzeko eta eraldatzeko inguruabarrei buruzkoa da. Hasteko, sektore horren jarduerak daukan esparru juridikoa zehazten da (49. artikulua). Autonomia-erkidegoko sektore publikoko erakundeek beste erakunde batzuetan parte hartzea jasotzen du, erakundeok sektore hartan sartuta gera daitezen (50. artikulua). Geroago, 51. artikulua autonomia-erkidegoko sektore publikokoak ez diren erakundeak finantzatzeko arau espezifiko bat aurreikusten du, eta motibazio berariazko eta berezia eskatzen du finantzaketa horren ekarpena jarraitua bada, lehiarik gabekoa, eta ehuneko berrogeita hamarretik gorakoa gastuen zenbatekoa.
24. II. kapituluak erakundeen ebaluazioa arautzen du. Autonomia-erkidegoko sektore publikoko erakundeak ebaluatzea aurreikusten du, erakunde horien sorrera edo parte-hartzea sustatu zuten xede eta helburuen betetze-mailaz den bezainbatean (52. artikulua), hala nola ebaluazio-prozedura (53. artikulua), zeina erakundearen autoebaluazioarekin hasten baita; Administrazioak egiaztatuko du autoebaluazio hori, eta Legebiltzarrerara bidaliko da, ezagut dezan Gobernuak onartu ondoren.
25. III. kapitulua erakundeak berregituratu eta azkentzeari buruzkoa da. Izaera bereko edo desberdineko erakundeak berregitratzean kontuan hartu beharreko arau orokorrak zehazten ditu (54. artikulua). Autonomia-erkidegoko sektore publikoak erakunde bateko partaidetza murriztea edo kentzea jasotzen du 55. artikulua, bai kentze edo murrizte horrek berekin sektore publikotik baztertzea ekartzen badu, bai aurreko hori gertatzen ez bada. Era berean, sektore publikokoa izatearen azkentzea eta sektore publikotik kanpo geratzea aurreikusten du. Azkentzean, atxikipeneko sailaren subrogazio-printzipioa bete beharko da. Amaitzeko, kapital osoa publikoa duen sozietate bat eratzeko aukera aurreikusten du, sozietate horretan akzio-partaidetzen kudeaketa kontzentratzeko (57. artikulua).
26. IV. kapitulua administrazio orokorraren eta sektore publikoan sartutako erakundeen arteko harremanei buruzkoa da. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen erregistroa sortzea aurreikusten du, non autonomia-erkidegoko sektore publikoan sartzea erabakitzen ez duten erakundeetako partaidetzak ere inskribatuko baitira, zein bere sailean (58. artikulua). Sektore publikoko erakundeak administrazio orokorreko sail batera atxikitzea xedatzen du, eta Eusko Jaurlaritzako atxikipeneko sailaren jarraibideei kasu egitea, besteak beste ogasun orokorrean eta enplegu publikoan (59. artikulua). Erakunde horien aurkako egintzen eta errekurtsoen araubidea zehazten du, Administrazio instituzionaleko erakundeetan eta sektore publikoko gainerako erakundeetan, administrazio-zuzenbidearen barruan jarduten dutenean (60. artikulua). Administrazio orokorraren ordezkariak beraiek gobernu-



organoetan parte hartzen duten sektore publikoko erakundeen kontrola esleitzen zaie, eta partaidetza ekonomikoaren arabera ordezkaritza ezartzen da arau orokor gisa (61. artikulua). Xedatzen da enplegatu publikoei administrazio-kontseiluko edo organo likidatzaileko kide gisa dagokien erantzukizuna bere gain hartuko duela enplegatu publikoa izendatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, enplegatuaren erantzukizun pertsonala alde batera utzi gabe (62. artikulua). Azkenik, 63. artikulua Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sozietate publikoen atxikipen- eta babes-araubidea xedatzen du, haien babes eta kontrolerako, alde batera utzi gabe ogasun eta administrazio publikoaren arloan eskumena duten sailei dagokien kontrola.

27. Aurreproiektuaren V. tituluaren izenburua hau da: “Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren funtzionamendua, herritarren zerbitzura jarduteko”. Lau kapitulu ditu.
28. I. kapituluak xedapen orokorrak biltzen ditu. Funtzionamenduaren eta herritarrekiko interakzioaren printzipioei buruzkoak dira, eta esaten dute printzipio gidaria herritarrei zerbitzua ematea dela (64. artikulua), hala nola herritarrek, EAEko administrazio publikoarekiko harremanetan, eskubide eta betebeharrak dituztela (65. artikulua).
29. II. kapituluak kudeaketa- eta ebaluazio-sistemei buruzkoa da. Bi artikulua ditu. Kudeaketa publiko aurreratua egiteko sistemak orokortzea xedatzen du, sektore publiko osoaren efikazia eta efizientzia sustatzeko (66. artikulua), baita antolamendu-unitateen kudeaketaren ebaluazioa ere, kudeaketa-sistema horien ezarpen-maila zein den jakiteko (67. artikulua).
30. III. kapituluak administrazio elektronikoa eta herritarrentzako arreta arautzen ditu. Bitarteko elektronikoen alde egiten da, herritarren eskubideak errespetatuta, eta EAEko administrazio publikoak esparru horretan zer printzipio dituen xedatzen da (68. eta 69. artikulua). Administrazio elektronikoen arloko eskubideak eta betebeharrak ere arautzen dira (70. artikulua). Administrazio elektronikoen ereduak garatzea aurreikusten da, autonomia-erkidegoko sektore publikoko instituzio eta erakundeei esleituta ereduaren garapena eta erakunde horiei jardura batzuk ezarrita (71. artikulua), hala nola parte-hartze publikoaren sustapena bitarteko elektronikoen erabiliz (72. artikulua). Era berean, administrazio-prozedurak sinplifikatzea aurreikusten du zerbitzu eta kanal elektronikoen bidez, datuak emateko edo baldintzak betetzeko, betiere bereziki babestutako datu pertsonalak errespetatuta (73. artikulua). Lankidetzatresna jakin batzuk jasotzen ditu administrazio elektronikoa sustatzeko, hala nola hitzarmenak eta administrazio elektronikorako aholku-batzordea (74. artikulua). Erakunde pribatuen eta publikoen terminal eta webguneen bidezko irisgarritasuna sustatzen da (75. artikulua). Herritarrekiko interakzio kontzeptua zehazten da; kanal anitzeko sistema batean oinarrituko da (76. artikulua).




31. IV. kapitulua EAEko administrazio publikoko hizkuntzei buruzkoa da. Bi hizkuntza ofizialak zerbitzu-, harreman- eta lan-hizkuntzak izango dira EAEko administrazio publikoan (77. artikulua). EAEko administrazio publikotik sortutako arau-xedapen edo ebazpen ofizial oro, publizitate ondorioetarako, bi eletan idazteko betebeharra jasotzen du (78. artikulua). Azkenik, berariazko bi artikulatu ditu espedienteetako eta erregistro publikoetako hizkuntzari buruz (81. eta 82. artikulua).
32. Lehen xedapen gehigarriak esaten du egin asmo den araua partzialki aplikatu behar zaiela autonomia-erkidegoko foru-organismoak, toki-erakundeei eta sektore publikoari.
33. Xedapen iragankorrak urtebeteko epea ezartzen du, arauaren aurretik sortuta zeuden eta araua betetzen ez duten sektore publikoko fundazioak araura egokitze, edo izapideak hasteko autonomia-erkidegoko sektore publikotik kanpo utz ditzaten.
34. Xedapen indargabetzaileak III. titulua indargabetzen du, hala nola Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen (EAEONAL) xedapen gehigarri bakarra — lege horren testu bategina azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartu zuen—; azken xedapen hori 6/2012 Legeak gehitu zuen (Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren gehiengoko partaidetza edo finantzaketa daukaten erakundeak arautze aldera, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legea eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Legea aldatzekoa, 2012ko martxoaren 1ean emana).
35. Azken xedapenetatik lehenengoak Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege-xedapenen testu bateratua onartzen duen 1994 abenduaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuaren 61. artikulua aldatzen du.
36. Azken xedapenetatik bigarrenak, berriz, Euskal Autonomia Elkarteko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko 14/1994 Legea (ekainaren 30ekoa) aldatzen du, eta laugarren xedapen gehigarri berri bat gehitzen.
37. Azken xedapenetatik hirugarrena araua argitaratu eta hurrengo egunean indarrean jartzeari buruzkoa da.


OHARRAK

I ESKUMENEI BURUZKOAK

38. Aurreproiektu honekin zerikusia duten eskumen-alderdiak batzorde honek aztertu zituen 120/2014 Irizpenean, Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektua izapidetu zenean.



39. Hortaz, eta kontsultaren urgentzia dela eta, nahikoa iruditzen zaigu aipatu irizpen horretan esandakora jotzea. Azterketa hura, indarrean eta eguneratuta egoteaz gain, orain aztergai dugunarekin lotura estua duen arau-proiektu bati buruzkoa da, eta, horregatik, ez da ezer gehitu edo eguneratu behar.
40. Soil-soilik gogorarazi behar da irizpenaren xede den aurreproiektua, sorburu izan duenarena bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10. artikuluko 2., 6. eta 24. zenbakietako eskumenetan oinarrituta dagoela.
41. Aipatutako eskumen-tituluek tarte zabala ematen dute administrazio autonomikoaren antolaketa eta funtzionamendua arautzeko, baina, Estatuari arauketa horretan eragina izateko aukera eman diezaioketen beste eskumen batzuk gorabehera, nagusiki kontuan hartu behar da Konstituzioaren 149.1.18 artikuluko oinarritzko estatu-eskumena (Espainiako Konstituzioa): —“administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak”—.
42. Lurralde historikoei eta toki-erakundeei dagokienez, gaiaren azterketa espezifiko egin behar dugu; izan ere, Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuan hemen Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa esaten zaiona baino ez zen sartzen, baina hizpide dugun aurreproiektua harago doa, eta, partzialki bada ere, bai sektore publiko forala bai sektore publiko lokala biltzen ditu bere aplikazio-esparruan, eta sektore horiek guztiek “EAEko sektore publikoa” esaten zaiona osatzen dute.
43. Hala ere, hizpide dugunaren aurrekari moduan aurkezten den proiektua dela-eta eman genuen irizpenean ere (120/2014 Irizpena) azaldu genuen batzordeak gai honetaz duen iritzia. Orduan esan genuen bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.2 artikulua ikuspuntutik, ez da pentsatu behar foru-organoen antolaketa-autonomiak erabateko erresistentzia egiten dionik legegile autonomikotik datorren gutxieneko edozein eragini, EAEko botereen artean dagoen erakunde den aldetik, betiere zalantzan jartzen ez badira autonomia horren antolaketa-ezaugarriak, desitxuratzen ez bada foru-araubide tradizionalaren irudi identifikagarria, oinarri egokia badu agindu konstituzionaletan eta printzipiozkoa bada.
44. Era berean, adierazten dugu hori gertatzen dela arauketaren xedea denean zaintzea EAEko administrazioen eta beraien herritarren arteko harremanetan nagusi izango direla jarduera- eta jokabide-printzipio komun batzuk (46/2012 Irizpena); gogoeta hori eraman daiteke, are arrazoi handiagoarekin ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.6 artikuluan aurreikusitako titulura, betiere foru-erakundeen berme instituzionala adierazitako moduan errespetatuz gero.
45. Are gehiago, aurreproiektu honek proposatzen duenari aurrea hartuta, eta espedientean izapidetu bitartean planteatutako kontuetako batzuk jasota,



ondorioztatzen genuen ikusmolde hau bat etor zitekeela aurreproiektu haren xedearekin, eta horrek onartzen zuela haren aplikazioa, partzialki bada ere, foru-administrazioetara ere hedatzea. Ausartu ere ausartu ginen esatera horrek, beharbada, aukera emango zuela EAEko botere publikoen eta administrazio guztien ikuspegi orokorragoa eta koherenteagoa emateko.

46. Bada, aurreproiektu honek, bere aplikazio-esparruaren barruan bai sektore publiko forala bai lokala onartzean eta sartzean, ikuspegi hori ere bere egiten du. Alde batetik, printzipio-esparru komun bat ezartzen du EAEko sektore publiko osoarentzat, baina autonomia-erkidegoan Eusko Legebiltzarrari baino ezin zaio egokitu helburu hori; bestetik, berriz, foru- eta toki-administrazio bakoitzaren autonomia eta autoantolatze ahalmena errespetatu nahi dira, esaten baita xedatzen den aplikazio partziala antolatze arauen, araubidearen eta funtzionamendu instituzionalaren arabera gauzatuko dela.
47. Toki-esparruari dagokionez, lehenago kontuan hartutako tituluei Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.4 artikuluan aurreikusitakoa gehitu behar zaie —eskumen eskusiboa gai honetan: “Toki-araubidea eta Euskal Herriko zein toki-administrazioko funtzionarioen estatutua, Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan finkatutakoari kalterik egin gabe”—; eskumen-titulu eskusiboa, zeinak, Estatutuak berak dioen bezala, administrazio publikoen araubide juridikoari dagokion tituluaren babespean emandako oinarritzko estatu-legedian baitu muga berriz ere.
48. Eskumen-titulu horren azterketa Batzorde honetan ere egin da sakonean, Euskadiko Udal Legearen aurreproiektuaz den bezainbatean, gure 160/2014 Irizpenean, eta irizpen horren garapenean azaldutakoari lotzen gatzazkio.
49. Prozedurako hizkuntzei eskainitako zatiari dagokionez, eragina baitu bai foru-esparruan bai toki-esparruan, gogorarazi behar dugu erakunde komunen eskumena dela zehaztea Espainiako Konstituzioaren 3.2 artikulutik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 6. artikulutik eratortzen den koofizialtasunaren norainokoa, bi hizkuntzen erabilera bermatuz, eta beraien ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta bitartekoak antolatuz eta arautuz.

II ARAUDIA

50. Berriz ere gure 120/2014 Irizpenean kontuan hartuta araudira jo behar dugu, nahiz eta, kasu honetan, erabiltzen zen ikuspegia zabalagoa izan, gardentasunarekin eta gobernu onarekin zerikusia zuten gaiak ere jasotzen zirelako.
51. Aurreproiektu honi dagokionez, han deskribatutako arau-esparrua eguneratu beharrekoa da, bertan sartuta sektore publikoaren arrazionalizazioari eta




administrazio-erreformarako beste neurri batzuei buruzko 15/2014 Legea, irailaren 16koa. Lege horrek, zeinari buruz gure irizpenean ere esaten baitzen laster onartuko zela, aldatu egiten ditu puntu batzuetan bai, 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, bai 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa; gainera, beste arau bat jasotzen du partzuergoak banandu eta likidatzeari buruz.

52. Indarrean dagoen arau-esparruaren barruan ez egonda ere, komeni da, halaber, aurreratzea eta kontuan hartzea litekeena dela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea eta Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko Legea ordeztuko dituzten bi arau onartzea: administrazio-prozedura erkidearen lege bat eta sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko lege-proiektu bat, zeinen parlamentu-izapidea aurreratuta baitago; Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikulua esparruan oinarritzeko den legedi ardatza bilduko dute.
53. Toki-administrazioari dagokionez, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legea —bere aldaketekin—, Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikulua babespean emana bera, izan da toki-araubideari buruzko oinarritzko araudia bildu nahi izan duen estatu-legea, inola ere alde batera utzi gabe, toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginak ere, zeina apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi baitzuen, badituela oinarritzko agindu jakin batzuk gai horretan, hala nola Toki-ogasunak arautzeko Legearen testu bateginak, zeina martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartu baitzuen.
54. Onartzeaz dagoela ematen duen estatu-legedia aipatu dugun bezala, autonomia-esparruan aipatzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko udal legearen proiektua, zeinean, esparru eskusibo honetarako, printzipio-zerrenda zehatz bat ere jasotzen baita, hala nola hizkuntzei eta toki-administrazioan euskara erabiltzeari buruzko zati bat.

III ERATZE-PROZEDURA

55. Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legeak (8/2003, abenduaren 22koa) bere ezarpen-eremuaren barruan sartu ditu lege-forma duten xedapen orokorrak.
56. Hori gorabehera, batzorde honen doktrina denez, lege-aurreproiektuak egiteko prozedurari buruz iritzia ematen duenean, kontuan hartzen du eginkizun desberdina daukala legezko arauetan eta erregelamenduzko arauetan, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legean bertan aitortzen den bezala, zioen azalpenean




esaten baitu xedapen orokor guztietarako erabiltzen duen metodologia bera lege-proiektuen idazketan erabiltzean xedea hau dela: “...legegintzako ahala duenaren eginkizuna erraztu egingo da, hobeto funtsatutako egitasmoak aurkeztuko baitzaizkio eztabaidarako eta erabakia hartzeko, helburuak iristeko egokiagoa eta finagoa den teknika juridikoaz artikuluka banatuak”.

57. Legearen proiektuak egiteko prozedurari buruzko azterketa —materialki eta funtsean finalista— egiteko, batzordeak Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legearen jarraibideak sistematizatu ditu, eta hauek bereizi: (I) hasierako fasea, ekimena proposatu duen organoan garatu eta helburu nagusitzat duena hasierako testua finkatzea, hari eusten dioten arrazoiak nabarmentzea, eta, kasuan kasu, beharrezkoak diren izapideak egiteko beharrezkoa den dokumentazioa egitea; (II) prozedura irekitzeko fasea, arauaren eraginpean gerta daitezkeen sektore eta administrazioak aintzat hartuta; (III) txostenak —nahitaezkoak eta aukerakoak— egiteko fasea; eta (IV) amaierako fasea: ekimena bultzatu duen organoak, prozedura-iter guztia ebaluatuta, behin betiko testua finkatu, eta azken dokumentuak —justifikatzeko memoria eta memoria ekonomikoa— prestatzen ditu.
58. Ekimenaren kasuan, prestatzeko prozeduraren azterketa, gainera, hasteko agindutik ondorioztatzen den bezala, bi kontuk baldintzatzen dute. Alde batetik, aurrekari hurbil eta egungoarekin zerikusi zuzena duen bat dago: Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektua; bestetik, aurreproiektua eta kontsulta urgentziaz izapidetzen dira, euskal sektore publikoaren gardentasun, parte-hartze eta gobernu onari buruzko lege-aurreproiektuarekin batera.
59. Bi kontu horiek, bestalde, Eusko Legebiltzarrak 2015eko ekainaren 18an onetsi zuen mozio batean dute jatorria; 13/2015 Mozioan, hain zuzen. hona hemen hitzez hitz.

“Eusko Legebiltzarrak ondorengo hau eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari:

1. Ganbera honetara bidal dezala euskal sektore publikoaren antolakuntza eta funtzionamenduari buruzko lege-proiektu bat, sektore publiko gisa ulertuta euskal administrazio publikoei beraien eremu komun, foral eta lokalean lotuta dauden sektore publiko guztiak. Helburua da euskal sektore publiko efiziente eta eraginkorra egituratzea, dauden erakundeen arrazionalizazioa lortze aldera.

2. Ganberara bidal dezala euskal sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onari buruzko lege-proiektu bat, apustu egingo duena baliabide publikoen kudeaketan erabateko gardentasuna izatearen alde eta herritarren parte-hartze aktiboaren alde, eta, printzipio orokorreaz gain, jasoko dituen herritarren




eskubide eta betebeharrak oinarritzeko eta komunak euskal administrazio publiko guztiekin dituzten harremanetan.

3. Bi lege horiek egiterakoan, duten garrantzia aintzat hartuta, kontuan izan ditzala legebiltzar-taldeek Gobernuak bertan behera utzitako euskal administrazio publikoaren lege-proiektuari aurkeztutako zuzenketak. Helburua da ahalik eta adostasun handiena lortzea, tramitazioa ahal beste arintze aldera.

4. Bi proiektuak Ganberara bidal ditzala hurrengo bilkura-aldia hasi baino lehen, haien tramitazioari lehenbailehen ekite aldera".

60. Horiek horrela, hasteko, gogorarazi behar dugu Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legeak ez duela berez aurreikusten urgentziazko prozedurarik, baina 14. artikuluan esaten du ezen, behar bezala egiaztatutako urgentziazko arrazoiengatik ezinezkoa bada xedapen orokorraren xede diren gaietarako arauetan aurreikusitako prozedurazko izapideren bat betetzea, izapideok baztertu ahal izango direla arrazoituta, lege-maila edo -indarra duten arauak nahitaezkoztat jo ezean.
61. Kontu horiek aintzat hartuta, sail sustatzaileak hasieran pentsatu du Euskal Administrazio Publikoaren Legearen aurreproiektua prestatu bitartean egindako izapideren bat ez zela beharrezkoa, hala nola genero-eraginaren beste ebaluazio bat egitea edo txostenak eskatzea Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordeari, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoari. Hala ere, atal honen garapenean egiaztatu ahal izango den bezala, azkenean txostenak eskatu zaizkie Emakunderi, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.
62. Guri dagokigunez, 120/2014 Irizpenean zabal azaldu genituen Euskal Administrazio Publikoaren Legearen aurreproiektua egiteko prozeduran parte hartu zutenek erabilitako argudioak, baina azalpen hori, kasu honetan, laburtu egin behar dugu, lehen emandako arrazoi berengatik.
63. Hortaz, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legean aipatutako jarraibideen ildotik, lehenik eta behin esan behar dugu ezen, adierazi den bezala, prestaketa-prozedura hasteko agindua sartu dela espedientean.
64. Era berean, aurreproiektuaren lehen bertsioa idatzi ondoren, aurretiazko onarpen-agindua jaso da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legearen 7.1 artikulua aurreikusitako moduan.




65. Aurreproiektua azaltzeko memoriak, arauaren xedea eta helburua adierazi ondoren, berriz ohartarazten du: "... ekimena ez da guztiz ex novo sortua gobernuaren plangintza-aurreikuspen egokitik abiatuta, baizik eta 'Euskal Administrazio Publikoaren Lege proiektuaren' aurrekariari dagokion testutik bereizi zelako egitate egiaztagarritik sortutako geroagoko lan sortzaile baten ondorioa da; izan ere, duela egun gutxi egin zen proiektuaren parlamentu-izapidea, eta Gobernuak alde batera utzi zuen, une hartako testuinguru politiko negatiboa kontuan hartuta". Aurreproiektu berriak sektore publikoaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko zatia jasotzen du aurreko hartatik, taldeek parlamentu-aldian egindako proposamenekin aberastuta.
66. Azterketari dagokionez, betiere parlamentu-taldeek aipatu aurrekaria izapidetu bitartean egindako ekarpenei lotua bera, azpimarratzekoak dira arauaren aplikazio-esparruari dagokion ikuspegi berriari buruzko azalpena, eta taxutu eta zedarritu egiten dela "euskal sektore publikoa", zeinari aurreproiektuan aurreikusitako kontu jakin batzuk aplikatuko baitzaizkio, hala nola sektore horren definizioa Parlamentuaren berariazko proposamen bat delako identifikazioa.
67. Memoria ekonomikoari dagokionez, pentsatzen da ezen, oro har, antolaketa-egitura autonomoen sorrera arrazionalizatzeko eta mugatzeko neurrien eta sektore publikoak hobeto funtzionatzearen ondorioz asko aurreztuko dutela administrazioak eta, oro har, herritarrek. Administrazioari dagokionez, aurreproiektuaren lerro gidariak "Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa birdimentsionatzeko eta arrazionalizatzeko estrategia" delakoaren bidez aplikatzearen ondorioz aurreztu dena aipatzen da: 235.297.715 euro. Planteamendu horren arabera, aurreztutako zenbatekoak honako kostu hauek konpentsatuko ditu: kudeaketa aurreratua egiteko sistemak ezartzeko kostuak, administrazioa sinplifikatzeko eta prozedurak digitalizatzeko neurriak, administrazio elektronikorako aholku-batzordearen sorrera eta herritarrekiko kanal anitzeko interakzio-sistema bat ezartzeko kostuak. Horiek guztiak ia guztiz kuantifikatuta daude, eta gehienak, gainera, aurrekontuetan jasoak.
68. Saileko aholkularitza-juridikoak aurreproiektua aztertu du, eta zenbait ohartarazpen egin ditu, aurreproiektua hobetzeko, batez ere barne-koherentzian eta arauak egiteko teknikaren arloan.
69. Entzunaldiari eta parte-hartzeari dagokienez, administrazio orokorreko gainerako sailei, lurralde historikoetako foru-aldundiei eta EUDELi igorri zaie proiektua. Autonomia-erkidegoko Administrazio sailen artetik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak oharrak ez duela egingo esateko baino ez du erantzun, eta Ogasun eta Finantza Sailak zenbait ohar bidali ditu. Ohar horietan zalantzan jartzen da zenbait erakunde euskal sektore publikoan sartzea, zaila eta onura gutxikoa delako. Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiko Koordinazio Zuzendaritzak ere oharrak egin ditu: aurreproiektuaren egiturarekin dute zerikusia nagusiki, bai aurreproiektuaren



aplikazio-esparruaren definizioaz bai daukan edukiaren eta Gobernu Legean xedatuaren arteko bat-etortzeaz den bezainbatean.

70. Azpimarratzekoa da foru-aldundirik ez egotea, testuari buruzko oharrik ez dutelako egin; EUDELe, berriz, dokumentu tekniko bat baino ez du aurkeztu, baina EUDELeko batzorde eragileak ezin izan du berretsi, organoak berritzeko aldiari jaso dutelako testua. Batzorde Juridikoak uste du foru-administrazioen parte-hartze aktiboak, aplikazio-esparruari dagokionez izandako paradigma-aldaketa dela eta, ondorio onuragarriak baino ezin zitzakeela izan, sektore publikoaren zati garrantzitsua direlako beren mendeko erakundeekin batera, eta arauak partzialki sektore hori duelako helburu.
71. Sektore publikotik kanpo, ELA, UGT, CCOO eta LAB sindikatuak eta enpresaburuen Confebask erakundeak bidali zaie aurreproiektua. Haien artean, CCOO sindikatuaren alegazioak baino ez dira jaso; aplikazio-esparruari eta administrazio instituzionaleko erakundeak dekretu bidez azkentzeko aukerari buruzkoak izan dira.
72. Era berean, Lan Harremanen Kontseiluari eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari ere esan zaie irizpena emateko, baina lehenengoak soilik erantzun du, aurreproiektuari buruzko ekarpenik ez duela adierazteko idazki baten bidez.
73. Txosten teknikoaren esparruan, Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektua dela eta egindako genero-eraginari buruzko ebaluazio-txostena gehitu da; ebaluazio hori berriz ere berretsi du Emakundek, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluen aplikazio zuzenaz den bezainbatean.
74. Kultura Sailak ere txostena aurkeztu du proiektuak euskararen erabileraren normalizazioan daukan eraginari eta hizkuntza-arloan indarrean dagoen araudiarekiko egokitzapenari dagokienez, eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak antolatutako buruzko txosten bat egin du; bi txostenotan aldeko iritziak ematen dituzte zeinek bere esparruan, zenbait ohar eta iradokizun egitearekin batera.
75. Hori guztia oinarri hartuta, izapidegileak memoria bat egin du proiektuaren izapideari buruz, txostenetan eta alegazioetan ordura arte azaldutako gaiak aztertuta.
76. Geroago, HAEEK, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak zenbait artikuluri buruz egindako ohartarazpenak gehitu dira.




77. Azkenik, aurrekoaren osagarritzko memoria berri bat egin da izapideari buruz, non baztertu egiten baita aldaketak egitea azken fase honetan egindako ekarpenen ondorioz.
78. Batzorde honi dagokion azterketan, esan behar da ezin dudatuzko konplexutasun objektiboa duela testu berri bat prestatzeak aurrekoa oinarri hartuta, Legebiltzarraren mozioan ezarritako ildoei jarraitu nahiz zehaztutako epe laburra errespetatuta, eta organo sustatzaileak ahalegin handia egin duela helburu hori lortzeko, baina ez dugu kontuan hartu gabe utzi behar, aurreko horren guztiaren ondorioz, zein den testua egiteko prozesuaren helburua.
79. Gure 120/2014 Irizpenean esan genuen bezala, kontua ez da proposatutako arautze-eduki guzti-guztien justifikazio osoa eskatzea, baina, haxe eransten dugu orain: oreka egokia aurkitu behar da neurritz gaineko eskakizun horren eta alderdi garrantzitsuenei buruz informazioa izateko beharraren artean —bereziki, txostenetan eta alegazioetan arreata berezia jarri zaien alderdiei dagokienez—.
80. Batzordeak, azken batean, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko Legearen 10.2 artikulua aitaz duen ondoriozko memoriaz iritzia ematean, irizpide material batera jotzen du normalean, eta ez du funtsezkotzat hartzen, bai gomendagarritzat, ordea, memoria hori dokumentu bakar batean sartzea. Edukiari dagokionez, memoria, nagusiki, Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuaren parlamentu-tramitazioan aurkeztutako zuzenketetan oinarritu da, beharbada prozesu osoan izandako urtegiak baldintzatuta, baina egokia da gogoraraztea horrek, azken batean, ez duela salbuesten Jaurilaritza lege-proiektuetan dagokion lidergo eta egiletasun intelektualetik.
81. Memoria honen gaineko irizpen askotan errepikatu dugun bezala, legegileak prozedurazko iter osoaren ebaluazio laburtua eskatzen du: oinarria, aukera, egindako hautuak, hautuen arrazoiak eta ebaluazio juridiko eta ekonomikoa.

IV AURREPROIEKTUAREN EDUKIAREN AZTERKETA

A) Ohar orokorrak:

82. Aurreratu dugun bezala, irizpenaren xede den aurreproiektuak lotura estua du Jaurilaritzak gutxi gorabehera orain dela urtebete onetsitako eta Legebiltzarrera izapidetzeko igorritako Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuarekin. Izan ere, haren edukia eta euskal sektore publikoaren gardentasun, parte-hartze eta gobernu onari buruzko legearen aurreproiektuarena —zeinari buruzko irizpena aldi berean egin baita— bat eginda, Legebiltzarraren eskaera bat du oinarri, bi proiektu bereizitan jaso nahi izan baitu edukia; hala, proiektu horiek elkarrekin batuta –



egokitizat jotako aldaketak ere barruan direla-, Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuaren edukia osatzen dute.

83. Aurreko horren ondorioz, eta kontsultaren urgentzia ere kontuan hartuta, komeni da irizpenak batez ere kontu berriei erreparatzea, baztertu gabe gai batzuei berriz heltzea eta, are gehiago, mantentzen diren kontu batzuei buruzko ekarpen berriak gehitzea, betiere laguntzeko eta aurreproiektua hobetzeko asmoarekin.
84. Lehenik eta behin, ikusten da aurreproiektuak, Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuak bezala, Administrazioa arautzearen esparrura dakarrela autonomia-erkidegoko Administrazioaren antolaketa instituzionalaren eta sektore publikoaren arauketa, bat etorritik gai honetan orokorrean, Estatuko oinarrizko legedia barne, gertatzen den —ogasun-esparrutik antolaketa-esparrura— arteko ikuspegi-aldaketarekin.
85. Bigarrenik, aurreproiektuak administrazio-antolaketaekin zerikusia duten alderdi batzuk arautzen ditu, baina gai hori, esana dugun bezala, guztiz baldintzatuta dago oinarrizko legediaren ondorioz; zehazki, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen ondorioz. Horregatik, beharbada, esaten genuen testuak ez duela gaia osorik arautu nahi, eta gai jakin batzuei soilik erreparatzen die, gai horietan beharrezkotzat jo delako oinarrizko araudia osatzea, aspalditiko Gobernu Legean kontu honi buruz dagoen legedi autonomiko urria ere errespetatuta.
86. Orduan planteatu genituen ohar orokorretako batzuk gainditu egin dira, eta beste batzuk aztertu egin behar dira euskal sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onari buruzko lege-aurreproiektuaz den bezainbatean, zeinaren tramitazioa —bai eta batzorde honen irizpena ere— aldi berean egiten ari baita.
87. Lehendabizikoei dagokienez, esan behar dugu bi testuak bereizteak sinplifikatu egin duela autonomia-erkidegoko administrazioa eta berorren erakunde instituzionalak zein mendeko erakundeak aipatzeko erabilitako terminologia, horiek guztiak arauaren hartzaile nagusiak izaki. Hala ere, konplexutasuna nahikoa areagotzen da, ikusiko dugun bezala, euskal sektore publikoa mugatzen ahalegintzean, arauaren aplikazioa Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuan aurreikusita zegoenetik harago partzialki hedatzeko azken xedearekin. Kontu hori eta beste kontu terminologiko zehatz batzuk alde batera utzita, uste dugu autonomia-erkidegoko sektore publikoaren zehaztapenari aurre egiteko moduak aukera ematen duela errazago eta ziurrago ulertzeko zein diren arauaren hartzaileak eta mezuak. Zehaztapen hori, Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektua bezala, kontzeptu ezagunetatik abiatzen da —administrazio orokorra, instituzionala eta gainerako sektore publikoa—,




baina “Euskal administrazio publikoa” terminoa gehitzeak perimetro zehatza ezartzean eragiten zituen interferentziak izan gabe.

88. Era berean, halako ahalegin txiki bat ikusten da arauak ordenamendu autonomikoan txertatze ordenatua izan dezan, arauaren artikuluetan kokapen ez-sistematikoa izango luketen alderdietan beste arau batzuk aldatzearen alde eginez, baina, kasu honetan, iruditzen zaigu lan hori ez dela nahikoa, oso zehatzak diren bi konturi baino ez zaielako heltzen, eta kontu horiek oinarritzko araudiaren aplikazioagatik autonomia-erkidegoari atxikita dauden partzuergoekin dutelako zerikusia nagusiki, kontuan hartuta badaudela beste batzuk, Gobernu Legearekin zerikusia dutenak, edo diru-laguntzen esparruan, baztertu gabe beste kontu zehatz batzuk ere ondare-arloan edo Jaurilaritzaren zerbitzu juridikoen antolaketa-arloan, pentsatzera eraman baitezakete komeni den ala ez berariazko aldaketak egitea ordenamendu autonomikoko zenbait arautan.
89. Ordenamendu juridikoan sartu beharreko edozein lege berriren edukiak kontuan hartu behar du zer leku bete behar duen ordenamendu horretan, eta, bereziki, zer ondorio ateratzen diren legedi orokorraren eta bereziaren arteko loturetatik, alde batetik, eta lege-mailako arauen eta erregelamenduzko xedapenen artekoetatik, bestetik. Kasu honetan, legedi orokorraren eta bereziaren arteko harreman horren testuinguruan kokatu behar da hausnarketa hau.
90. Gobernu Legearen kasua berezia da, aurreproiektuak formalki osorik errespetatzen duelako, eta lege-esparru nagusiaren zatia delako autonomia-erkidegoko administrazioaren antolaketa-egituraren eta funtzionamenduaren arloan. Agerikoa da testu hori formalki ez aldatzeko asmo argia dagoela, baina, era berean, argi dago aurreproiektuan araututako kontuetako batzuek legea bestela interpretatzera beharko dutela; adibidez, II. tituluko II. kapituluaren goi-kargudunen eta egitura organikoen arloan aurreikusita daudenek.
91. Azken batean, aurreproiektuaren memoriak dio eskuzabaltasunez onartu direla lege onargarritzat jotako zuzenketa guztiak, eta horren eraginez gertatu ahal izan da disfuntzioaren bat testuaren idazketan edo barne-koherentzian. Batzorde honek, ordea, dagokion berme-eginkizunaren arabera, testuaren kalitate teknikoaz eta bideragarritasun juridikoaz arduratu behar du, inolako baliorik kendu gabe Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektua dela-eta arrakastarik gabe egindako tramitazioko parlamentu-lanari —partzialki baino ez da ezagutzen, gainera—.


Aplikazio-esparrua:

92. Aplikazio-esparrua da aurreproiektuak, bere aurrekari hurbilaren aldean, dauzkan berritasun nagusietako bat. Aurreproiektuaren 1. artikulua bi helburu xedatzen ditu:




alde batetik, administrazio publikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde guztien antolaketa eta funtzionamendua arautzea (1. zenbakia); eta, bestetik, euskal sektore publikoa osatzen duten elementuak eta sektorearen dimentsionamenduan eta eraldaketan aplikatu daitezkeen arau eta oinarri komunak zehaztea.

93. Aplikazio-esparruari buruzko artikulua 3.a da, baina artikulua “euskal sektore publikoa” kontzeptua (4. artikuluan aurreikusita) zedarritzeari lotuta dago, eta, horregatik, gure ustez, komeni da azken hori aztertzea eta argitzea, aurreproiektuak bere aplikazio-esparruari nola heltzen dion aztertu baino lehen.
94. Administrazioak, gaur egun, bere funtzioak eta eskumenak garatzean erabiltzen dituen edo erabil ditzakeen jardunbide asko eta askotarikoak kontuan hartuta, euskal sektore publiko horren zedarritze zorrotza kontu garrantzitsua da, konplexua izateaz gain.
95. Aurreproiektuak darabilen izendapenaren arabera euskal sektore publikoa deritzon hori zedarritzen saiatzeko justifikazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan bertan dago, autonomia-erkidegoaren eskumen eskusiboen artean, eskumenen azterketan esan bezala, EAEko sektore publikoaren gaia jasotzen duelako.
96. Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta Bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundearen Arteko Harremanei buruzko Legearen 30.3 artikuluan (27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa) gertatu zen EAEko sektore publikoaren edukia zehazteko lehen ahalegina “Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren agintepideei dagozkienetarako” adierazten baitu, eta, geroago, 1988ko otsailaren 5eko Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legeak berak beste behin zedarritu zuen EAEko sektore publiko horren perimetroa, berriz ere kanpo-kontrolako organoaren jardute-ondorioetarako. Gaur egun arte, beraz, batez ere funts publikoen kontrolaren esparruan gauzatu dira sektore horren perimetroa zehazteko ahaleginak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jardunaren bidez.
97. Nahiz eta, berriro diogu, euskal sektore publiko hori Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jardura-esparrua zehazteko zedarritu den, pentsa daiteke ahalegin horiek lehen saio moduko bat direla, zeinaren arabera onartzen baita badagoela, autonomia-erkidegoan lurralde- eta eskumen-erakunde espezifiko bat egotetik harago, elementu komun publiko bat, erakunde publikoetatik kontrolatzen den guztiaren azpian dagoena, edo funts publikoen bidez finantzatzen dena.
98. Hizpide dugun artikulua, bestalde, eduki hori berriz zehazten ahalegintzen da, antolaketarekin lotura handiagoa duen ikuspegi bat erabiliz, baina uko egin gabe ikuspuntu ekonomikoari, edo erakundea elikatzen duten funtsen jatorrian oinarrituta.




99. Lehen zenbakiak euskal sektore publikoa deritzon multzoa aintzatesten du. Multzo hori EAEko administrazio publiko guztietako sektore publikoek osatzen dute, honako hauek barne hartuta: EAEko administrazio orokorra, lurralde historikoetako foru-administrazioak eta toki-administrazioak, horiek guztiak bakoitzari dagokion administrazio instituzionalarekin, eta mendearen edo atxikita dauzkaten gainerako erakunde instrumentalekin.
100. Bigarren zenbakiak beste erakunde batzuk –askotarikoak– sartzen ditu sektore publiko horretan bertan, besteak beste: Eusko Legebiltzarra, batzar nagusiak, toki-korporazioak eta maila instituzional bakoitzeko gobernuak, hala nola instituzio horietan parte hartzen duten edo instituzio horien kontsultetarako edo aholkularitzarako erabiltzen diren organoak, independentzia izanik beren funtzioak garatzeko sortu zituen legearen ondorioz, eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
101. Hirugarren eta laugarren zenbakiek sektore publikoko administrazioen edo erakundearen baterako jardunak gehiengoz partaidetutako erakundeetara zabaltzen dute kontzeptua, hala nola erakundearen ordezkaritza- edo gobernu-organoen gaineko kontrolarekin edo kapitalaren edo ondarearen jatorriarekin zerikusia duten kasu berezi batzuetara.
102. Bada, hasteko, batzordearen ustez ondo dago esparru publiko hori zedarritzen eta homogeneizatzen ahalegintzea, esparrua konplexua, iheskorra baita askotan, eta dauzkan mugak bereizten zailak baitira batzuetan.
103. Kontzeptu horri, diogun bezala, zenbait ikuspuntutatik aurre egin dakioke, eta, hartara, desberdinak izan daitezke emaitzak. Aski da ikustea nola, gastu publikoaren kontrolaren ikuspuntutik, sektore horrek hel diezaiokeen ondasun edo efektu publikoak administratzen edo erabiltzen dituen edozein erakunderi [Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Legearen 2.1.a) artikulua], erakundearen titulartasun edo kontrolarekin zerikusia duen beste edozein irizpide gorabehera.
104. Nolanahi ere, azterketak, edozein ikuspuntutatik eginda ere, eremu komun bat lortzen ahalegindu behar du, bere muinean beste testuinguru batzuetara ere estrapolatu ahal izateko. Bestela, euskal sektore publikoari eragiten dion arauketa bat egiten ahalegintzen den bakoitzean, berriz zehaztu beharko da sektorearen edukia, eta kontzeptu horren erabilpenean aurreratzeko ahaleginak nahastea besterik ez du ekarriko.
105. Ohartarazpen hori egiten dugu orain dela gutxi aldatu zelako Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Legean azaldutako euskal sektore publikoaren kontzeptua (6/2012 Legea, martxoaren 1ekoa); hain zuzen ere, kontzeptua eguneratzeko eta argitzeko zenbait administrazio partaidetutako erakundeei dagokienez. Era berean, euskal enplegu




publikoaren lege-aurreproiektuak, zeina batzorde honen irizpenaren zain baitago, bere definizioa ematen du euskal sektore publikoaren gainean, baina definizio hori ez dator bat, alderdi deskriptiboan behintzat, aurreproiektu honetan xedatuarekin. Hortaz, komeniko litzateke hori kontuan hartzea gai honi helduz, lortzen den definizioa ahalik eta errazena, koherentea eta ulergarria izan dadin. Kasu bakoitzean administrazioaren jardunari heldzeko erabiltzen den ikuspegi desberdinak aplikazio-esparru desberdina arau desberdinetan ezartzeko beharra izan dezake, baina horrek ez luke oztopo izan behar arautze-esparru desberdinetara estrapola daitekeen euskal sektore publikoaren kontzeptua zedarritzeko.

106. Helburu hori lortzeko, batzordeak uste du komeniko litzatekeela euskal sektore publikoaren kontzeptua eta arauaren aplikazio-esparrua bereiztea, ez baitute zertan bat etorri.
107. Aurreproiektuak, berriro diogu, erreferentziazko arau autonomikoa izan nahi du administrazio publikoen eta berorien mendeko erakundeen araubide juridikoaren esparruan, eta, horregatik, garrantzitsua da kontzeptuzko zedarritze hori behar bezala zehaztuta geratzea arau honetan. Kasu honetan, testuak zehatz eta sakon zedarritu nahi du “publikoa” den oro, artikulua hau osatzen duten paragrafoetan zehazten direnak euskal sektore publikoan ondoz ondo sartzearen bidez, baina sistematizazio horrek aztertu beharreko kontu batzuk planteatzen ditu.
108. Laugarren artikulua horren eduki zehatzari dagokionez, 1. zenbakia euskal sektore publikoaren muina da, betiere ulertuta sektore hori autonomia-, foru- eta toki-esparruetako sektore publikoek osatzen dutela. Badirudi oinarritzeko adostasuna dagoela eta iritzi orokorra dela muin horretan egon behar dutela bai autonomia-erkidegoko autonomia-, foru- eta toki-sektore publikoek bai gehiengoz partaidetutako edo kontrolatuko erakundeek, sektore horiek osatzen dituzten erakundeetako batzuen baterako jardunaren bidez.
109. Nolanahi ere, uste dugu ohar batzuk egitea komeni dela 2. zenbakiko askotariko erakundeei dagokienez.
110. Lehenik eta behin, bai Legebiltzarra bai batzar nagusiak herriaren borondatea ordezkatzeko duten organoak dira, eta ez dira nahasi behar Administrazioarekin inolako forma edo pertsonifikaziotan; gainera, antolaketa- eta funtzio-autonomia bermatuta izan behar dute beti. Ezin dudatzeko kontua da Administrazioari aplikatu dakizkiokeen printzipioak eta arauak haien jardueraren zati bati aplikatzekoak direla —zehazki, *ad extra* jardunari dagokion alderdiari—, baina, instituzio publikoak izanda ere, ez dago justifikatuta sektore publikoan sartzea, antolaketa-printzipio jakin batzuen mende egon daitezen, zer-nolako izaera berezia duten kontuan hartuta. Besterik da *ad extra* harremanetan, funts publikoen erabileran eta langileen, ondasunen edo zerbitzuen




kontratazioan, beren egintzen araubideak, diogun bezala, Administrazioak dituen arau berak izan behar izatea, baina kontu hori hobeto geratzen da adierazita, berariaz, xedapen gehigarri baten bidez, barnean hartuta, egokitzen joz gero, aipatu ganberaren mende dauden erakundeak, hala nola Arartekoa eta Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

111. Batzordeak badaki Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Legeak lurralde historikoetako batzar nagusiak sartzen dituela euskal sektore publikoaz daukan ikuspegiaren barruan, baina, era berean, gogorarazi behar da ezen, organo fiskalizatzaileak berak egindako interpretazioaren arabera, ordezkartza-organoren foralak ez dituela inoiz fiskalizatu hark, hain zuzen ere foru-organoren horien izaera berezia aintzat hartu delako. Horrenbestez, horrek arauen artean sortuko lukeen gatazka formala litzateke, ez erreala.
112. Tokiko korporazioen kasua –betiere ulertuta ordezkartza-organoren direla eta toki-erakunde baten gobernu eta administrazioa dagokielako– bete-beteko ordezkartza-organoren ez bezalakoa da, baina ez lirateke jaso behar sektore publikoaren barruan. Ordezkartza-eginkizuna betetzeaz gain, toki-administrazioaren organo ere badira, eta ulertu behar da 1. zenbakian sartuta daudela toki-administrazioaren barruan. Arrazoibide hori bera dela eta, ez da beharrezkoa maila instituzional bakoitzeko gobernuak aipatzea; izan ere, zorrotz izanda, horiek ere 1. zenbakian sartuta egongo lirateke, autonomia-erkidegoko administrazioaren eta lurralde historikoetako foru-administrazioaren barruan daudelako.
113. Partaidetzazko organoen buruzko berariazko aipamena, batzorde honen iritziz, orokorregia da. Organoen buruz ari denean, aukera ematen du tarteki horretan sartzeko nortasun juridikoa duten erakundeak, bai eta, nortasun juridikorik izan gabe, beren eginkizunak, zeinek bere aldetik, Administrazioaren barruan garatzen dituztenak ere. Azken kasu horretan, ez da berariazko onespenez behar sektore publikoan sar daitezen, ulertu behar delako atxikita dauden administrazioari buruzko aipamenean sartuta daudela.
114. Baina zentzua har dezake baldin eta aipatzen dituen erakundeak berezko nortasun juridikoarekin eratuta badaude lege bidez, eta Jaurlaritzarekiko nahiz Legebiltzarrarekiko guztizko autonomia eta independentziaz badihardute beren eginkizunak betetzean; izan ere, horregatik uler daiteke ez daudela sartuta 1. zenbakian. Hori litzateke Lan Harremanen Kontseiluaren eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen kasua. Ezin dira baztertu sortu diren edo etorkizunean sortuko diren horrelako beste erakunde batzuk, hala nola euskal sektore publikoan sartzeko sorrerako arauan bertan berariaz xedatuta daukan beste edozein erakunde.
115. Berezia da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren kasua, ez baitirudi eztabaidagarria izan daitekeenik bulegoa sektore horretan sartzeko, baina ez dago argi kontuan




hartutako kasuetako zeinetan sartuta egongo litzatekeen. Aurreproiektuaren arabera, kasu orotan gertatuko litzateke, 4. zenbakiko b) letran aurreikusitakoa aplikatzearen ondorioz, baina nekez uler liteke, jarduera zuzenbide publikoaren arabera gauzatzen duen eta funts publikoekin finantzatzen den zuzenbide publikoko erakunde publiko bat euskal sektore publikoan sartzeko, hondar-irizpide bat erabili behar izatea, halakoa baita bere presidentetzaren edo ordezkaritza-organo gorenaren izendapena.

116. Gauza horiek guztiak argi jaso beharko lirateke arauan, nortasun juridiko independentea duten baina atxikipen-erregimenik ez duten erakunde publikoak aipatuta, baztertu gabe, era berean, segurtasuna areagotzeko, eta daukaten kopuru urria kontuan hartuta, erakunde horien bana-banako zerrenda jasotzeko aukera.
117. Euskal Herriko Unibertsitatea sektore publiko horretan sartzea ere egokia da, zerbitzu publikoa ematen duen eta gehienbat funts publikoekin finantzatuta dagoen erakunde publiko bat delako.
118. Era berean, erabaki egokia dela ematen du sektore publiko horretan 3. zenbakian jasotako erakundeak sartzea, erabilitako deskribapena gorabehera, erakunde horietan argi utzi nahi baita autonomia-erkidegoko administrazio batekiko edo batzuekiko bitartekotasun-erlazioa. Hala ere, esparru horretan, bereziki 4. zenbakian zedarritu nahi den esparruan, egin beharko litzateke ahalegin handiagoa, dauzkan edukia eta idazkera homogeneizatzeko beste arau batzuetan, besteak beste aipatutako Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Legean edo, hala egokituz gero, euskal enplegu publikoari buruzko etorkizuneko legean aurreikusitakoaren arabera.
119. Nolabaiteko itxierako klausula bat da 4. zenbakia; bertan, kuantifika daitezkeen irizpide batzuk sartzeko dira, eta irizpide horietako edozein beteta, edozein erakunde euskal sektore publikoan sartuta geratuko da. Irizpide horiek gobernu-, ordezkaritza- edo administrazio-organoen izendapenarekin eta kapitalarekin edo ondarearekin dute zerikusia. Gure ustez, horren bidez, sektore horretan gerta litezkeen “ihesak” saihestu nahi dira, zenbait irizpide objektibo ezarrita, baina erabilitako teknika dudazkotzat jo daiteke, batzuetan errepikakorra izateagatik, eta beste batzuetan zehaztugabea. Errepikakorra, baldintza horiek betetzen dituzten erakunde gehienak euskal sektore publikoaren barruan egongo direlako aurreko paragrafoetan xedatuaren arabera. Zehaztugabea, e) letraren kasuan aurreikusitakoaren arabera, “jatorria aurrekontuetan” dagoela esatean aipamen hori anbiguoegia delako ondorio hauetarako, eta aurrez ezin jakinezkoa zer emaitza izango duen euskal sektore publikoaren perimetroan aplikatzeak, berriz ere egiten den interpretazioaren arabera izango delako, nahiz eta, hain zuzen ere, hori saihestu nahi den.



120. Hitz batean, euskal sektore publikoaren barruan dagoenaren perimetroa zehatz erabakitzeko zailtasuna onartuta ere, batzordeak uste du hura zedarritzean kontuan hartu behar direla, egindako ohar zehatzak ez ezik, honako hiru irizpide hauek ere:
- a) Kontzeptuak argia izan behar du, eta adostasun handia bildu behar du, 4. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan jasotako erakundeen multzoak biltzen duen bezala;
 - b) beste arau-sektore batzuetara estrapolatzeko modukoa izan beharko luke, ñabardurak eta salbuespenak baztertu gabe; eta
 - c) ez luke zertan nahitaez bat etorri erreferentziatzen hartzen duen arau bakoitzaren aplikazio-esparruarekin.
121. Gaiaz zer iritzi dugun argituta, 3. artikulua ezartzen duen aplikazio-esparrura itzuli behar dugu, zer eduki daukan aztertzeko.
122. Lehen zenbakiaren arabera, I. tituluko II. kapituluako printzipioak (4.-7. artikulua) euskal sektore publiko osoan aplikagarriak izango dira, sektore hori 4. artikulua oro har zedarritua dela ulertuta. Hau da, sektore horren gaineko ikuspegi zabaldua da.
123. Bigarren zenbakia arauaren gainerako edukiei buruzkoa da, eta berorren aplikazioa Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikotik kanpo zabaltzen du, xedapen gehigarriak adierazitako moduan, eta kasuan kasuko araudi instituzionalaren arabera. Xedapen gehigarriak, bestalde, lurralde historikoetako foru-organismoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei, I. tituluko II kapituluaz (4.-7. artikulua) eta V. tituluko IV. kapituluaz (77.-80. artikulua) gain, zeinak sektore publikoaren funtzionamenduko hizkuntzei buruzkoak baitira, honako hauek aplikatzea aurreikusten du: antolakuntza- eta funtzionamendu-printzipioak (11. artikulua), funtzionamendu- eta herritarrekiko interakzio-printzipioak (64. artikulua) eta administrazio elektronikoarekin zerikusia dutenak (69. artikulua), hala nola herritarrek Administrazioaren aurrean (65. artikulua) eta administrazio elektronikoaren testuinguruan (70. artikulua) dauzkaten eskubide eta betebeharrak buruzko manuak.
124. Xedapen gehigarrian eta 3. artikuluan aurreikusitakoaren emaitzari dagokionez, lehen azterketak aukera ematen digu ikusteko foru- eta toki-sektoreetan aplikazioa gai nagusietara mugatzen dela, hala nola herritarrek administrazio publikoaren aurrean dituzten eskubideei eta sektore publikoaren funtzionamenduko hizkuntzei dagokionez, eta hori, batzorde honen ustez, bat dator lehen aztertutako eskumen-eskemarekin. Hala ere, ohartarazpen bat egin daiteke lurralde historikoetako foru-organismoak buruzko aipamenaz, bai foru-aldundiak bai batzar nagusiak barruan hartzen dituelako termino horrek. Batzorde honen ustez, aukerarik egokiena, lehen emandako arrazoiengatik, 4. artikuluko terminologia bera erabiltzea litzateke: lurralde



historikoetako foru-administrazioak eta toki-administrazioak, kasuan kasuko administrazio instituzionalarekin eta gainerako erakunde instrumentalekin.


B) Artikuluei buruzko oharrak:

Euskal Sektore Publikoa Arrazionalizatzeko eta Dimentsionatzeko Erakunde Arteko Batzordea:

125. Euskal Sektore Publikoa Arrazionalizatzeko eta Dimentsionatzeko Erakunde Arteko Batzordea sortzen du **7. artikulua**; batzordea honako hauek osatzen dute: Eusko Jaurlaritzak izendatutako zenbait adituk, foru-aldundiek eta EUDEL Euskadiko Udalen Elkartek, erregelamendu bidez zehaztuaren arabera. Erakundearteko batzorde horri ikerketa- eta proposamen-eginkizunak esleitzen zaizkio, sektore publikoen artean izan litezkeen eraginkortasun-gabeziei, gainjartzei eta bikoiztasunei dagokienez, eta, bereziki, EAE sektore publiko osoaz bezala estatuko sektore publikoaz den bezainbatean.
126. Estatuko sektorea modu horretan jasotzea justifikatuta dago, beraren eginkizunak azterketaren eta proposamenaren esparruan garatzen direlako, eta, beraz, ahalmen betearazlerik ez duelako.
127. Dena den, bikoiztasun-arriskua saihesteko hain zuzen ere, gomendagarria da, eginkizunak zehaztean, Euskadiko Udal Legearen proiektuak aurreikusten dituen erakundearteko beste organo batzuei (Euskadiko Tokiko Politika Publikoen Kontseilua eta Tokiko Gobernuen Batzordea) esleitzen zaizkienekin batera kontuan hartzea eta aztertzea eginkizun horiek.


Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren erakunde-antolamendua:

128. Zati honetan, aurreproiektuak ia ez du aldaketarik egiten Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuaz den bezainbatean. Azpimarratzeko da gaur egun, Legebiltzarrari lotutako eskubideen eta betebeharren titulartasunari dagokionez, EAEONALen 7.5 artikuluan xedatua dagoena **8.3 artikuluan** sartu dela, baina kontu hori, egun, hobeto ebatzita dago 2/2007 Legegintzako Dekretuak (azaroaren 6koa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzekoa) daukan seigarren xedapen gehigarrian. Horregatik, ez-sistematikotzat jotzen dugu, nahiz eta konturatu osorik ordeztu nahi duen EAEONALen zatian dagoela.
129. Bigarrenik, beste ohartarazpen bat egin behar dugu **10. artikuluan** aurreikusitako administrazio independenteari dagokionez.
130. Aurreproiektuak administrazio independente horren aintzatespen esplizituari eusten dio, baina aldaketa batzuk egiten ditu. Pertsona bakarreko organoak izateko aukera



zabaltzen da, eta espezialitate teknikoaren irizpidea ezartzen da, kide anitzeko organoaren ordezkoko aukera moduan, aukera metagarria izan beharrean. Era berean, berariaz aipatzen da “administrazio-agintari independenteak” izendapena, sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko legearen proiektuak jasotzen duen terminologia erabiliz, zeinaren barruan gaur egun Estatuko Administrazio Orokorraren antolakuntza eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian bilduta dauden zenbait erakunde jasotzen baitira.

131. Hala ere, batzordeak uste du indarrean jarraitzen dutela gure 120/2014 Irizpenean argitzeko aipatu ziren kontuetako batzuek; batez ere artikuluen xedearekin zerikusia duenak. Estatuko Administrazio Orokorraren antolakuntza eta funtzionamenduari buruzko Legearen hamargarren xedapen gehigarria hainbat erakunde kontuan hartzen ditu, besteak beste administrazio-agintari independenteak, beraien araubide juridikoa zehazteko ondorioetarako; hau da, erakunde zehatzak aipatzen ditu, eta zenbait arau ezartzen dizkie arlo batzuetan: aurrekontuak, langileak, kontratazioa... Bestalde, sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko legearen proiektuak estatu-esparruko administrazio-agintari independenteen arautze osoagoa jasotzen du — zalantzan jarria zenbait esparrutan—, eta beraiei kategoria berezia ematen die Estatuko sektore publiko instituzionalaren barruko erakundeen artean.
132. Hala ere, ez du ematen aurreproiektuak agintari horiek nortasun juridiko independentea izateko eskatzen duenik, organoak ere aipatzen dituelako, eta, nortasun hori lortzen dutenean, erakunde autonomoa, zuzenbide pribatuko erakunde publikoa edo partzuergoa izan behar dute, eta horrek, partzuergoen kasuan, zerbait behartua izaten jarraitzen du. Besterik da autonomia-erkidegoko Administrazioak horrelako partzuergo batean parte hartzea Eusko Legebiltzarraren lege bidez baimendu behar izatea.
133. Testuaren asmo ona onartuta ere, esplizituki aintzatesten baititu Administrazioaren barruan jokabide independentea duten organoak eta erakundeak, kontua da ezen beren ezohikotasuna eta heterogeneotasuna dela-eta oraindik ere ez dugula ikusten manu honen baliagarritasuna, adierazitako moduan behintzat; izan ere, alde batetik, lege-arau bidezko beraien sorrerara jotzean, edukiari buruzko baldintzak aldatu egin litzake —areago, baita kontuan hartu gabe utzi ere—, maila bera izaki, erakundearen sorrera legeak, eta, bestetik, ordea, haien izateko aukera kontuan hartu baino ez du egiten —zeina litekeena baita jada—, baina ia ez dio ezer gehitzen aplikatzen dakiekeen araubide juridikoari, organoen edo erakundeen berregituraketa edo azkentzea ere lege bidez gertatzeko eskakizunari dagokionez izan ezik.



Goi-organoak, goi-kargudunak eta zuzendaritza-organoak:

134. Gai hau, Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektua ez bezala, bereizita tratatzen da bi artikulutan, eta **14. artikuluko** zuzendaritza-organoen zerrendan agertutako zenbait inkongruentzia zuzendu egiten dira. Hala ere, berriz esan behar dugu ezen, 14.3 artikuluan iragarri ondoren zer printzipio kontuan hartu beharko diren zuzendaritza-organoetako titularrak izendatzeko prozesuetan eta haiek karguan aritzean, eginkizuna betetzeari buruzko printzipioak baino ez direla zehazten (erantzukizun profesionala egindako kudeaketagatik, eta kontrola nahiz ebaluazioa), izendapenaz ezer esan gabe.

Egitura organikoko dekretuak:

135. Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuan aurreikusitako eskema ere mantentzen da; gure 120/2014 Irizpenean ohartarazi genuen eskema horretaz. Bestalde, **15. artikuluan** xedatuaren arabera, sailak sortzea, aldatzea, biltzea eta desagerraraztea onartzen duen lehendakariaren dekretuak sailen egitura organiko eta funtzionalak zer antolakuntza-irizpidetara egokitu beharko duen zehaztuko du; **16. artikulua**, berriz, sailen egitura-dekretuetan, berariazko aldaketa proposatuta, irizpide horietatik aldentzeko aukera aurreikusten du.
136. Desberdintasun bakarra hau da: Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuak antolaketa-irizpideetako batzuk zehazten zituen, baina aurreproiektu honek ez ditu jasotzen; gainerakoan, araubidea bera da.

Kide anitzeko organoak:


137. Kontsulta- edo partaidetza-eginkizunak betetzeko kide anitzeko organoei buruzkoa da **18. artikulua**. Berriz esan behar dugu artikulua horrek eraginkortasun txikia izango duela lege-mailako arau bidez eratutako horrelako organoei dagokienez.
138. Aurrez 120/2014 Irizpenean esan genuen bezala, aurrekoaren adibidea da Administrazio Elektronikorako Aholku Batzordea sortzea, lankidetza- eta partaidetza-organo teknikoa izan dadin gai honetan EAEko administrazio publikoetarako. Batzorde horren sorrera erregelamendura igorri arren, legegileari egotzi behar zaio batzordea sortzea, funtzionatzen hasteko erregelamenduzko garapena beharrezkoa izan arren; horregatik, egokitu beharrezkoa da daukan idazkera. Organo horren sorrerak, esaten genuen bezala, agerian uzten ditu aipatutako zailtasunak; izan ere, sorrera arauan sartuta, eta, beraz, maila bera izanda, ezerk ez du eragozten sorrerako arauaren gutxieneko edukia ez betetzea. Kasu horretan, erregelamendura bideratzen dira bai osaera bai burutzako pertsona titularra eta gainerako kideak izendatzeko irizpideak.



139. Iruzkina hori 7. artikulua gainean ere egin daiteke, zehazki Euskal Sektor Publikoaren Arrazionalizatzeko eta Dimentsionatzeko Erakunde Artek Batzordearen sorreraz, eta batzorde horren osaketa zehatza ere erregelamenduzko araua bideratzen da.
140. Bestalde, orain, 2. zenbakian, kontsulta-eginkizunaren antolaketa jasotzen du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarrian xedatua gehituta. Hala ere, ohartarazi behar da ezen, xedapen gehigarri hori dagokionez, eginkizun hori autonomia-erkidegoaren esparruan garatzeko aukera batzorde juridiko hau sortzen eta arautzen duen legearen bidez hartuta dagoela. Hortaz, ez dauka zentzurik oinarritzeko arau batean xedatua errepikatzeak.
141. Azkenik, idazkerari dagokionez, egokiagotzat jotzen dugu “bartzertu gabe” erabiliz hasiera 1. zenbakia, sor daitezkeen kide anitzeko organoez “gain” erabiliz hasiera baino.


Administrazioen arteko lankidetzeta eta koordinazioa:

142. Kudeaketa-gomendio intersubjektiboaren arauketa mantentzen da (**37. artikulua**), eta Administrazioaren berezko bitarteko diren zuzenbide pribatuko beste erakunde batzuetako gomendioari buruzko beste artikulua bat (**38. artikulua**) gehitzen da.
143. Batzorde honek kudeaketa-gomendio intersubjektiboaren arauketa zalantzan jarri zuen Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuan, uste baitzuen argitu gabeko zenbait kontu zituela, nahiz eta, behar bada, azalpena urriegia izan. Ikusita aurreproiektuak lehen bezala eusten diola aukera horri, eta, are gehiago, zuzenbide pribatuko erakundeetarako gomendioei buruzko beste artikulua bat gehitzen duela, berriro helduko diogu gaiari, gure iritzia hobeto azaltzen saiatuz.
144. Batzorde honen ustez, ez da oztopo aurreproiektuan kudeaketa-gomendio intersubjektiboa aintzatestea, betiere ulertuta administrazio desberdinetako organoen eta erakunde publikoen edo gomendioa egin duen erakundearen berezko bitarteko diren zuzenbide pribatuko erakundeen artekoa dela. Era berean, ez zaio iruditzen eragozpenik dakarrenik haiek egituratzeko modua zehazteak. Are gehiago, kontu horiek egokitzat jotzen dira.
145. Baina gaur egun Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 15. artikuluan (eta sektore publikoaren araubide juridikoaren legearen proiektuaren 11. artikuluan) aurreikusita dagoen kudeaketa-gomendioa administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko erakundeen eskumeneko zerbitzuei edo jardura material edo teknikoei buruzkoa da, eta figura horretara jotzea aurreikusten du, eraginkortasun-arrazoiengatik, edo eginkizuna betetzeko bitarteko tekniko egokirik izan ezean. Erregimen horrek naturaltasunez



onartzen ditu gomendio intrasubjektiboa bezala intersubjektiboa ere, edo, bestela esanda, administrazio bereko edo beste bateko beste organo batzuk bezala administrazio bereko edo beste bateko erakundeak ere. Hitz batean, berezko eskumena baliatzeko bitarteko bat da, eta ez du berekin ekartzen eskumenaren titulartasuna edo bere erabileraren funtsezko elementuak lagatzea, intrasubjektiboki edo intersubjektiboki gertatuta ere.

146. Arazoa, ordea, zedarrituta dagoen figura bati arlo berriak ireki edo baldintza berriak ezarri nahi zaizkionean sortzen da: positiboki, toki-administrazioen araubide juridikoaren arloko oinarritzko araudiagatik; negatiboki, kontratazio arloko oinarritzko araudiagatik.
147. Berriz nabarmendu nahi dugu zalantzak sortzen dituztela figura administratibo klasiko horretara jo ahal izateko ordezkio aukera moduan bete behar diren baldintzek. Eta hala, 37.1 artikulua planteatzen dituen aukeren arabera, gomendioa doakoa balitz, badirudi posible izango litzatekeela gomendioaren xedea bat etorri ahal izatea administrazio-kontratu batenarekin; baina, xede hori, kausa edo beste inguruabarren batek kontratu-izaera hori izango ez balu, badirudi ordaindu egin litekeela. Ondorio horietarako, gogorarazten dugu ezen memorian, arauketa hau antzeko moduan jasotzen dela adierazteko, aipatzen den sektore publikoaren araubide juridikoaren legearen proiektuak irmoki esaten duela kudeaketa-gomendioek ezingo dituztela xede izan sektore publikoko kontratuei buruzko legeetan araututako kontratuen berezko prestazioak.
148. Era berean, argitu beharko litzateke jardura “doan” gauzatzeak esan nahi duen, halaber eta hala egokituz gero, “bere kontura” egitea, edo, bestela, gastuak gomendioa egin duen administrazioari edo erakundeari jasanaraz edo egotz lekizkiokeen.
149. Kasurik argiena artikuluko honetako b) letrarena da (etxe-kontratuei buruzkoa), kasuaren zedarritzatzea, berriro diogu, kontratuei buruzko legedian garatu delako.
150. Batzordeak badaki aurreproiektuan erabilitako idazkeraren antzekoa beste testu batzuetan baliatu dela (adibidez: 16/2010 Legea: abenduaren 17koa, Galiziako Administrazio Orokorraren eta sektore publiko autonomikoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa), eta egokitzen jotzen dugu aurreproiektuan jasotzea nola gauzatu gomendioak, baina oraindik ere uste dugu artifiziala dela kudeaketa-gomendio intrasubjektiboa eta intersubjektiboa biltzen dituen sailkapena, eta pentsatzen dugu beharrezkoak ez diren zalantzak planteatzen dituztela aurreproiektuaren 37.1 artikuluko baldintzek edo kasuek, zeinetan aukera ematen baita kudeaketa-gomendio intersubjektibora jotzeko.



151. Bestalde, 38. artikuluan beste gai bat sartzen da: zuzenbide pribatuko erakundeetako gomendioa. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 15.5 artikulua argi dio arautzen duen kudeaketa-gomendioaren araubide juridikoa ez dela aplikagarria izango gomendioen xedea zuzenbide pribatuari lotutako pertsona juridikoak edo fisikoak direnean, baina kasu honetan, berriz ere, gaiari administrazio-kontratazioaren ikuspuntutik heldu behar zaio.
152. Lehen zenbakiak gomendioa egin duen erakunde publikoa edo Administrazioaren berezko bitartekoa diren zuzenbide pribatuko erakundeak aipatzen ditu. Kontratazio publikoaren ikuspuntutik, aurreikuspen hori bideragarria da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak —azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua—, 24.6 artikuluan, esaten duelako sektore publikoko erakundeak beren jardueraren funtseko zatiaren hartzaile diren botere esleitzailen berezko bitartekotzat eta zerbitzu teknikotzat hartu ahal izango direla, botere horiek beraien gainean duten kontrola beren zerbitzuen gainean izan dezaketenean antzekoa denean. Hala ere, ohartaraz daiteke ezen, artikulua horren beraren arabera, ezingo direla hartu berezko bitartekotzat sektore publikoko sozietate guztiak, kapital osoa titulartasun publikokoa dutenak baizik.
153. Bigarren zenbakiko kasua, bestalde, hondar-kasu bat da, kontratuei buruzko legedian ere justifikatzen dena, zehazkiago bere aplikazio-esparrua Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 4.1.d) artikulutik baztertzean (hitzarmenak, zeinak, dagozkien arau espezifikoak arabera, Administrazioak egiten baititu zuzenbide pribatuari lotutako pertsona juridikoekin edo fisikoekin, betiere pertsona horien xedea ez badago sartuta lege honetan araututako kontratuen xedean, edo administrazio-arau berezietan), zeinari Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 15.5 artikuluan azken tartekia gehitzen baitzaio, horrelako pertsona edo erakundeei, indarreko legediaren arabera, administrazio-zuzenbideari lotuta egin behar diren jarduerak egokitzeke ezintasunaz den bezainbatean.
154. Horrenbestez, titulu honetan etxe-kontratuak ere jaso nahi dira, nahiz eta kasu honetan zuzenbide pribatuari jarraitzen dioten erakundeei buruzkoa izan. Hala ere, kasu honetan aurreproiektuaren xedea eta idazkera aurreko artikuluan baino argiagoak dira, eta zalantza gutxiago sortzen dira; izan ere, berezko bitarteko izatea aipatzean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginean aurreikusitako definizioari buruz zuzenean ari dela ulertu behar da.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren osaera:

155. Titulu honek autonomia-erkidegoko sektore publiko osoaren egitura instituzionala jasotzen du. Lehendabizi, osatzen duten erakundeen araubide juridikoa zehazten du.



156. Autonomia-erkidegoko administrazio instituzionala osatzen duten erakundeen barruan, erakunde autonomoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak mantentzen dira, eta merkataritza-erakunde autonomoen ezabapena berresten da, baliagarritasunik ez dutela egiaztatu delako.

Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak:


157. Zuzenbide pribatuko erakunde publikoei dagokienez, **40. artikuluko** 4. zenbakiak idatzita dagoen moduagatik erratzea eragin dezakeen mandatu bat jasotzen du. Hauxe dio:

“(…) Hala ere, lege honen ondorioetarako, administrazio-mailari dagokionez ez dira parekoak zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako organoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organoak, estatutuetan ondorio jakin batzuetarako ezartzen diren salbuespen-kasuetan izan ezik.”

158. Batzordearen ustez, aurrekoak esan nahi du erakunde horietako organoak ez direla administratiboak oro har, batez ere zuzenbide pribatuaren esparruan jarduteko eratzen direlako, baina mailari buruzko aipamenak bide ematen du beste interpretazio bat ere egiteko. Asmoa uste izatekoa dena balitz, badirudi errazagoa litzatekeela aipatzea organo horiek ez direla administratiboak izango, eta, dauzkaten estatutuen arabera, beren ahalmen administratiboak garatzen dituztenean parekatuko liratekeela administratiboekin.


Kapital-sozietateak:

159. Kapital-sozietateei dagokienez, hasieratik errepikatzen dugu komeni dela terminologia bateratzea, aurreproiektuan zehar bereizketarik egin gabe erabiltzen direlako sozietate publikoak, sektore publikoko sozietateak eta merkataritza-sozietate publikoak, nahiz eta testu osoan izen komun bakar batean bilduta egon beharko luketen.
160. Kapital-sozietateak autonomia-erkidegoko sektore publikoan sartzeko baldintzak ez dira aldatzen, eta beharrezkoa dute beren kapitalean partaidetza gehiengoduna izatea, partaidetza gehiengodun horretarako sektore publiko hori osatzen duten erakundeetako edozeinen partaidetzen batura kontuan hartuta.
161. Baina **41. artikuluko** 3. zenbakia berritasun handia da proiektu honi dagokionez: Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektua. Manu horrek xedatzen du araua, autonomia-erkidegoko sektore publikoan dauden sozietateetarako aurreikusitako orotan, aplikatu egin behar zaiela, aipatu sektore horretan sartzeko baldintzak



betetzen ez badituzte ere, honako baldintza hauetako bat betetzen duten kapital-sozietateei.

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalaren edo lege honen bidez arautzen diren gainontzeko erakundeen esku egotea sozietateko boto-eskubide gehienak, zuzenean edo beste bazkide batzuekin lortutako akordioei esker.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak edo lege honen bidez arautzen diren gainontzeko erakundeek eskubidea izatea sozietateko organoetako kide gehienak izendatzeko edo kentzeko, bai zuzenean bai beste bazkide batzuekin lortutako akordioei esker.
162. Argitu beharrik ere ez dago atal hau autonomia-erkidegoko sektore publikoan sartzeko baldintzak betetzen ez dituzten kapital-sozietateei buruzkoa dela; hau da, sektore horretako erakundeen partaidetza gehiengoduna ez den kapital-sozietateei buruzkoa. Testuinguru horretan, batzordeak uste du ezen, xedatzen denean erabakitzeko edo zuzentzeko ahalmenaren gaineko kontrola eraginkorra izan daitekeela beste bazkide batzuekin egindako akordioen bidez, bazkideen zer-nolakoa zehaztu gabe, izatezko hipotesia askotarikoak edo are unean unekoak ere izan daitezkeen egoeretara zabaltzen dela eta egoera horietan aurreproiektuko xedapenak aplikatzeak arazo juridikoak bezala faktikoak ere sor ditzakeela.
163. Hasteko, argitu beharko litzateke zer baldintzarekin aplikatu beharko litzaikeen aurreproiektua sozietate horiei; hau da, ea aplikazio horren barruan sartzen diren 5. zenbakian ogasunaren berezko gaiak. Hala balitz, autonomia-erkidegoko sektore publikoan formalki sartzetik harago, ez litzateke alderik egongo sozietate horiei aplikatzeko araubidearen eta sektore publikoan sartzen direnei dagokienaren artean.
164. Bigarrenik, kontuan hartu behar da autonomia-erkidegoak bere sektore publikoko kapital-sozietateekin zerikusia duten gai jakin batzuk arautzeko aukera, eskumenen azterketan aurreratu dugun bezala, bere antolamendua, araubidea eta funtzionamendua bezala sektore publiko propioa ere (Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10. artikuluko 2. eta 24. zenbakiak) arautzeko ahalmenean kokatzen dela. Hori hala da Konstituzio Auzitegiak berak ere honako hau onartu duelako: “(...) Zuzenbide Pribatuaren arabera pertsonifikatzen diren edo funtzionatzen duten erakundeen tresna-izaera dela eta, erakunde horien azken titulartasuna argi eta garbi publikoa den instantzia administratibo baten esku dago, publikoa den bezala erakunde horiek eta mendeen dauzkan Administrazioak lotzen dituzten harremanen barne-esparrua, Administrazioak azken batean Zuzenbide Pribatuak eskainitako teknikak baliatzen dituelarik” (KAE: 14/1986, urtarilaren 31koa).



165. Autoantolakuntzaren esparrutik harago, kapital-sozietateei aplikatzekoa den araubide juridikoa aldatzeko aukerak oztopo gaindiezina izango luke Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 artikuluko estatu-eskumen eskusiboa —merkataritza-legedia—.
166. Hortaz, ulertu behar da aurreproiektuak hipotesi horietan aurrez suposatzen duela tresna-izaera hori —ulertuta azken batean publikoa den titulartasun batera jotzen dela — Administrazioaren eta araubide juridiko espezifikoaren ezarri nahi zaien kapital-sozietateen artean. Hala ere, bi zenbakiak egun idatzita dauden bezala, tresna-izaerako harreman hori eztabaidagarria izan liteke, diogun bezala, kontrol horretara beste bazkide batzuekin egindako akordioaren bidez iristen den hipotesiak ere jasoz gero. Azken kasu horretan, sozietate publikoekiko edo sektore publikoko sozietateekiko parekatze orokorra gehiegizkoa izan liteke bai autoantolakuntzaren ikuspuntutik, araubide juridiko publiko bat ezartzen baitzaie erakunde pribatuei, bai eskumeneren ikuspuntutik, kapital-sozietate jakin batzuen araubidea ekimena bermatzen duten eskumen-tituluetara jo ahal izan gabe arautzearen ondorioz.
167. Hitz batean, aurreproiektuak aurre egin behar dien erronka nagusietako bat sektore publikoaren ikuspegi funtzionala elementu formal batzuen bidez zertzea da, oso lan zaila baita beti nahi den zehaztasunez lortu ezin daitekeena. Nolanahi ere, batzordeak uste du ezen, gai honetan ziurtasun handiagoa emateko, zati horren behin betiko idazkerak bi gauza kontuan hartu beharko lituzkeela: lehenik, “lege honetan jasotako xedapena” aipatu beharrean, argi adierazi beharko litzateke zein diren, hala egokituz gero, aurreproiektuko edo beste arau batzuetako manuetatik aplikagarriak izango litzatekeenak igorpen bidez; bigarrenik, zehatzago jaso behar litzateke beste bazkide batzuekiko akordioei buruzko aipamena; azken horri dagokionez, uste dugu bazkide publikoak baino ez liratekeela izan behar.

Sektore publikoko fundazioak:

168. Autonomia-erkidegoko sektore publikoko fundazioei dagokienez (42. artikulua), aurreproiektuak Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuaren edukia mantentzen du zatirik handienera, baina baditu gauza berri batzuk ere.
169. Lehendabizi, kasu honetan argi uzten da pertsona juridiko pribatuen edo pertsona fisikoen parte-hartzea, beharrezkoa baita aukera instrumental honetara jo ahal izateko, fundazioaren hornidurari gehitutako ekarpen ekonomiko baten bidez gauzatu behar dela.
170. Bigarrenik, xedapen iragankorrak urtebeteko epea aurreikusten du sektore publikoaren barruan egoteko aurreproiektuan aurreikusitako baldintzak betetzen ez dituzten autonomia-erkidegoko sektore publikoko fundazioak baldintza horietara egokitu daitezkeen edo aipatu sektoretik ateratzeko izapideak egiten has daitezkeen.



Sektore publikoko partzuergoak:

171. Autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoak aipatzen ditu **43. artikulua**ren izenburuak, baina artikulua idazkerak bide ematen du pentsatzeko artikulua zati batzuk —zehazki, 1., 2., 6., 7. eta 8. zenbakiak— autonomia-erkidegoak esku hartzen duen partzuergo guztietarako direla: arauaren behin betiko idazkeran argitu beharreko lehen kontua litzateke.
172. Bigarrenik, gure 120/2014 Irizpenean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen hogeigarren xedapen gehigarriko sarrera aipatu genuen, Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bidez. Orduan ohartarazi genuen han aurreikusitako atxikipen-araubideak berekin zekarrela autonomia-erkidegoko sektore publikoan formalki sartuta egoterik ez zuten partzuergoak Administrazio Orokorrari atxikita gera zitezkeela, eta ondorioak sektore horretan sartuta egonez gero izango ziratekeen oso antzekoak izango zirela.
173. Badirudi estatu-legediaren asmoa dela partzuergo “autonomoak” izan daitezen saihestea, beren araubide juridikoa ez badago argi, ezin direlako sartu, osatzen dituzten administrazioen edo Administrazioaren irizpideen arabera, berorietako ezein esparru instituzional edo sektore publikotan. Bestalde, egia da, halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak xedatutako irizpideak erabiltzearen ondorioz, partzuergo bat administrazio bati atxikita gera daitekeela, are haren gaineko kontrola eztabaidagarria izanda ere. Hori gerta daiteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen hogeigarren xedapen gehigarriko f), g) eta h) letren arabera, partaidetza eta finantzaketa oso banatuta daudenean zenbait administrazioen artean, eta beraietako ezeinek ez daukanean benetan nagusia den partaidetzarik edo kontrolik.
174. Aurreproiektuak beste partzuergo batzuen atxikipen-araubidea aintzatesten du oinarrizko legediaren ildotik, baina aldatu gabe autonomia-erkidegoko sektore publikoaren perimetroa, zeinak, nagusiki, autonomia-erkidegoak partzuergoaren gainean duen benetako kontrola kontuan hartzen jarraitzen baitu. Bestalde, bi erregela jasotzen dira bi xedapen gehigarrietan atxikita dauden baina autonomia-erkidegoko sektore publikokoak ez diren partzuergo horientzat. Lehendabizikoa aurreproiektuaren azken xedapenetako lehenengoan jasota dago, eta bosgarren xedapen gehigarri bat eransten du Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuan. Bigarrena azken xedapenetako bigarrenengoan jasota dago, eta laugarren xedapen gehigarri bat eransten du Euskal Autonomia Elkarteko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legean.




175. Azken emaitza da, alde batetik, partzuergo horien aurrekontuak, hala nola beraien likidazioa, Euskadiko aurrekontu orokorrekin eta beraien likidazioarekin batera joango direla hurrenez hurren, baina informazio-ondorioetarako baino ez; kontabilitate- eta kontrol-araubideari dagokionez, berriz, Eusko Jaurlaritzak gai horietan eskumena duen sailaren proposamen bidez dioena kontuan hartuko da.
176. Batzordeak, horri dagokionez, uste du autonomia-erkidegoak bere sektore publikoa antolatzeke daukan eskumenak ezin duela saihestu Espainiako Konstituzioaren 149.18. artikulua babesean emandako oinarritzko legediaren aplikazioa, baina aukera ematen duela mekanismo edo prozedura propioak baliatzeko partzuergo horietako batean parte hartzea erabakitzean.
177. Hala ere, partzuergo horiekiko halako urruntze gutxi-asko justifikatu bat sumatzen da, eta horrek, bestalde, nolabaiteko kontraesana sortzen du beraien araubidean; izan ere, alde batetik, esaten da ezen, hala egokituz gero, beren aurrekontuak informazio-ondorioetarako baino ez direla sartuko autonomia-erkidegoko aurrekontuetan, baina, bestetik, esaten da Eusko Jaurlaritzak erabakiko duela erakunde horien aurrekontu-araubidea.
178. Administrazioetik formalki bereizita dauden erakunde berrien eraketara jotzean justifikazio tekniko zorrotza eskatzea da, hain zuzen ere, aurreproiektuaren ardatzetako bat. Horretarako, autonomia-erkidegoko sektore publikoko erakundeak eratzeke prozedurak, aurreproiektuaren **44. artikuluan** aurreikusia bera, inguruabar faktiko, juridiko eta ekonomiko batzuk egiaztatzea behartzen du, hala nola alde aurretik hasierako jardura-plan bat prestatzera, besteak beste ekonomia- eta finantza-ikerketa bat izango duena. Autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoen kasurako, sektore publikoko partzuergo bat eratzeke betebeharra dakarren hitzarmenak, gainera, Gobernuaren alde aurreko baimena izan beharko du, eta baimen hori dekretu bidez emango da (**48.1 artikulua**).
179. Horrenbestez, ezerk ez luke eragotziko konturen bat sartzea ildo horretatik, edo, are gehiago, aurreproiektuaren 44. eta 48. artikuluetan eskatzen diren kontuetako batzuk, partzialki behintzat, aplikatzeko eskatzea, hain zuzen ere autonomia-erkidegoari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak dioenaren arabera, atxikitzea litzatekeen partzuergo bat eratzeke. Badirudi jarrera hori hurbilago dagoela aurreproiektuak adierazitako helburuetatik.
180. Hirugarrenik, 43. artikuluko 8. zenbakiak eta 48. artikulua (7. zenbakitik aurrera) 15/2014 Legean ere (irailaren 16koa, sektore publikoaren arrazionalizazioari eta administrazio-erreformarako beste neurri batzuei buruzkoa) oinarritzko izaeraz onartutako zenbait kontu jasotzen dituzte, partzuergo bat bereizteko eskubideaz eta likidatzeaz den bezainbatean.



181. Bada, bi kasuetan, ikusten da ezen, zer testuingurutan gertatzen den kontuan hartuta, oinarrizkoaren eransketa hitzez hitzekoegia dela.
182. Alde batetik, 43.8 artikulua haxe baino ez du egin behar, hori baita bere xedea: arautzea partzuergoaren bereizkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokor eta instituzionalaren aldetik, edo bere sektore publikoan sartuta dauden gainerako erakundearen aldetik, “kideetako edozein” aipamena kenduta, estatuko legedia mimetikoki errepikatzen duelako. Bestalde, 48. artikulua, 8. zenbakitik aurrera, partzuergoko edozein kide bereizteko eskubidea jasotzen du, baina oinarrizko araudian xedatutako araubidearen aldatze hitzez hitzekoegia egiten du, eta ez du kontuan hartzen zer testuingurutan izan beharko duen aplikagarria, hau da, partzuergoak eratzen, eraldatzen eta azkentzen diren testuingurua, baina ez autonomia-erkidegoko partzuergo guztiez den bezainbatean, ez eta beren Administrazioari Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko irizpideen aplikazioagatik soilik atxikita dauden partzuergoez den bezainbatean ere, baizik eta autonomia-erkidegoko sektore publikokoak direnei dagokienez baino ez. Batzorde honek, behintzat, hala uste du, eta, kasu honetan, 8. eta 9. zenbakietan “partzuergoa atxikita dagoen administrazioa” dela eta egiten diren aipamenak autonomia-erkidegoko Administrazioaren testuinguruan zehaztu beharko lirateke.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren antolamendua eta eraldaketa:

183. Titulu hau **49. artikulua**rekin hasten da; berorren edukiak aurreko tituluan kokatzea gomendatzen du. Izan ere, artikulua modu orokorrean xedatzen du aurreko tituluak I. kapitulu bana-banaka xedatzen duena; kapitulu hori ere sektore publikoko erakundearen araubide juridikoari buruzkoa da.
184. Geroago, **51. artikuluan**, arau espezifiko bat xedatzen du sektore publikokoak ez diren erakundeak diru-laguntzen, laguntzen edo edonolako ekarpen ekonomikoen bidez finantzatzeko; arau horren arabera, arrazoi espezifiko eta berezi bat eskatuko da, i) finantzaketa deialdi publikorik gabe ematen denean, ii) erakundearen diru-sarreraren aurrekontuaren erdia baino gehiago denean, eta iii), inguruabar berak aurreko ondoko ondoko bi ekitaldietan ere izan direnean.
185. EAEONALen 6. eta 7. zenbakietan xedatua oinarri hartuta, esan daiteke ezen, laguntza edo diru-laguntza bat ematen bada subentzio-jarduera arautzen duten printzipioak kontuan hartu gabe, dela aurrekontuan identifikazio izenduna baliatuta, dela zuzenean emanda, kasuok ezohikoak direla, eta justifikazio berezi baten beharra dutela.
186. Batzorde honek artikulua honetan EAEONALen eskatutakoari dagokionez nabaritzen dituen ekarpenak bi lirateke funtsean. Lehenik, 1. zenbakian aipatzen den justifikazio



bereziak ezinbestean hizpide izan behar du 2. zenbakian aurreikusitakoa; hau da, finantzaketaren zergatia den helburu publikoari autonomia-erkidegoko sektore publikokoa den erakundetik bertatik erantzuteko ezintasuna. Bigarrenik, aurrekontuetan izenez jasotako diru-laguntzen kasuan, arrazoi berezia berariaz jaso behar da aurrekontu horien memorian.


187. Hitz batean, batzordeak uste du artikuluko horren izenburupean araubide espezifiko bat ezartzen dela finantzaketa gehiengoduna eta egonkorra diren diru-laguntzak edo laguntzak emateko autonomia-erkidegoko sektore publikokoak ez diren erakundeei, eta, hori, bere edukiagatik, hobeto egokituko litzateke subentzio-araudian, diru-laguntza zuzen eta izendunen egungo arauketa osatuz.
188. Gainera, ohartarazi behar da ezen, ikuspuntu jakin batetik, uler daitekeela laguntza edo diru-laguntza horien justifikazio bereziko araubidea laxatu egiten dela finantzaketaren zergatia den helburu publikoari autonomia-erkidegoko sektore publikokoa den erakundetik bertatik erantzuteko ezintasuna justifikatzeaz den bezainbatean, finantzaketa eman eta ondoz ondoko hirugarren urtetik aurrera baino ez baita galdagarria izango. Horren ordez, kontu hori kasu guztietan eskatua izateko aukera kontuan hartzea proposatzen dugu, alde batera utzi gabe egindako hautua hiru urtean behin sakon berrikustea. Hartara, saihesti egingo litzateke hirugarren urte horretara iritsi eta inguruabar hori justifikatzeko nahiz iritzi horrek mugarik gabekoa izateko aukera, artikuluko honek nahi ez diren ondorioak izango lituzkeelako.

Erakundeak ebaluatzea:

189. Gai honi dagokionez, soil-soilik esan daiteke ezen, autonomia-erkidegoko sektore publiko osoan txertatu nahi den ebaluazio-kulturaren arabera, aurreproiektuak ebaluazioa ezartzen diela Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan sartuta dauden erakundeei, nola beraien sorrera edo partaidetza bultzatu zuten helburuen eta xedeen betetze-mailari buruz, hala jardutean erabilitako bitartekoen eta izandako lorpenen arteko erlazioari buruz.
190. Politika publikoen ebaluaziorako erabilitako Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuaren zatia gobernu oneko neurrien artean txertatu da, euskal sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onari buruzko lege-aurreproiektuan sartuta.

Erakundeak berregituratzea eta azkentzea:

191. Autonomia-erkidegoko sektore publikoan sartzea berekin ez dakarren partaidetzari buruzko aipamena egiten du bere izenburuan **55. artikulua**. Titulua, funtsean, bat dator Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuaren 47. artikuluenarekin, baina edukiak ez du bat egiten titulu horrekin, ez eta aipatu lege-proiektuaren



edukiarekin ere. Egia esan, autonomia-erkidegoko sektore publikoko erakundeetako partaidetza azkentzea edo murriztea arautzen du, berekin aipatu izaera hori bazter uztea ekartzen badu; kontu hori bat dator **56. artikulua**ren izenean adierazitako helburuarekin: “Azkentzea eta sektore publikotik kanpo geratzeta”.

192. Bigarrenik, bertan akzio-partaidetzen kudeaketa biltzeko xedearekin kapital osoa publikoa duen sozietate bat eratzeko **57. artikuluan** aurreikusita dagoen aukera aurreproiektu honetan kokatzeak, ondare-arauan kokatu beharrean, oraindik ere ez-sistematikoa izaten jarraitzen du. Ondare Legean VII. titulua enpresa-ondareari buruzkoa denez, manu hau ondo txertatuko litzateke lege horren edukian, eta, horretarako, hala egokituz gero, aldatu egin liteke, xedapen gehigarri baten bidez.
193. Azkentzeari eta sektore publikotik kanpo geratzeari buruzkoa da **56. artikulua**. Bere edukiaren barruan administrazio instituzionaleko erakundeak daude, bai eta autonomia-erkidegoko sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeak ere, eta, harrigarriro, azkentzeko edo kanpo geratzeko erabakia betiere Gobernuaren dekretu bidez hartu behar dela xedatzen du. Harrigarria dela esan dugu; izan ere, itxuraz, ez dator bat aurreproiektuaren beraren 45.6 artikuluan xedatuarekin, horrek, arau orokor moduan, eskatzen baitu lege bidez gauzatzeko administrazio instituzionala osatzen duten erakundeen azkentzea.
194. Gure 120/2014 Irizpenean esan genuen bezala, administrazio instituzionalean aurreikusitako figuretako baten bidez jarduteko erabakia lege bidez hartzen duena Legebiltzarra izateko aukerak zerikusia du, zalantzarik gabe, egoki dakizkiekeen eginkizun eta ahalmenekin; horregatik, ez da koherentea soili-soilik gobernuaren esku uztea antolaketa modu hori ezabatzeko aukera, non eta sorrerako legeak berak, edo besteren batek, zehazten ez duen zer arrazoik legitima dezaketen erabaki hori hartzeko.


Sektore publikoko erakundeen eta Administrazioaren arteko harremanak:

195. Atal hau autonomia-erkidegoko sektore publikoko erakundeen erregistroaz **58. artikuluan** egiten den aurreikuspenarekin hasten da. Kasu honetan, batzordeak ez du arazo juridikorik ikusten aurreproiektuak horrelako erregistro bat sor dezan, baina, aurreproiektuaren oinarrian dauden printzipioak kontuan hartuta, nahitaez ohartarazi behar du Kontrol Ekonomikoko Bulegoari buruz esandakoaz, kontuan hartua izan dadin, bai bailiteke eginkizunak eta datuak gainjartzea erregistroaren eta bulego horrek kudeatutako erakunde publiko eta partaidetuen inbentarioaren artean.
196. Bestalde, **60. artikuluan** aurreikusitako egintzen eta errekurtsoen araubideak Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuaren 53. artikuluan aurreikusitakoa du sorburu. Gure 120/2014 Irizpenean horri buruz esan genuenarekin bat etorrita, uste




dugu EAEONAL legean edo etorkizunean ordeztuko duen arauan kokatuta egon beharko lukeela 3. zenbakiak (autonomia-erkidegoko sektore publikoaren barruan dauden erakundeek diru-laguntzen arloan hartutako erabakien aurka gora jotzeko errekurtsioa jartzeko aukerari buruzkoa berau). Autonomia-erkidegoko sektore publikokoak diren erakunde pribatuen egintzen aurka gora jotzeko jar litekeen errekurtsioari buruzko zenbakiari dagokionez (4.a), berriz diogu proposatzen den bezala administrazio-errekurtsioa jartzeko bide berri bat irekitzeak beharrezkoa duela gehiago argitzea zer gai eta zer egintza edo erabaki izan daitezkeen beraren xedearen parte.

197. Bi iruzkin egin behar dira **61. artikuluari** buruz. Autonomia-erkidegoko Administrazioak gobernu-organismoetan bere partaidetzaren arabera ordezkartza izatea aipatzen du **3. zenbakiak**, eta partaidetza horrek gehiengoduna izan behar du nahitaez sektore publikoko erakundeetan. Bestalde, aurreproiektuko 42. eta 43. artikuluek, hurrenez hurren sektore publikoko fundazioei eta partzuergoei buruzkoak berak, bere gobernu-organoko kideen gehiengoa autonomia-erkidegoko sektore publikoak izendatu behar duelako eskaera saihetsezina jasotzen dute. Eskakizun hori ez da jasotzen, modu horretan behintzat, sektore publikoko sozietateetan, berorietan kapitalaren zatirik handienaren titulartasuna baita irizpide erabakigarria, baina badirudi logikoa dela pentsatzea erakundeko gobernu-organo guztietara aldatuko dela kapitalaren titulartasuna. Nolanahi ere, 41. artikulua ez du jasotzen merkataritza-sozietate bat autonomia-erkidegoko sektore publikoan sartzeko baldintza hori.
198. Arazoa litekeen ez-betetze bat gertatzean sortzen da. Sektore publikoko fundazio eta partzuergoentzat ondorioa argia izango da —Administrazioak ezingo du parte hartu sektore publikoan sartzeari dakarkioten ehunekoetan edo baldintzetan—, baina ez litzateke hain argia izango sozietateentzat. Gomendatzen dugu kontu hori berriz aztertzea, testuaren barne-koherentzia hobetzeko.
199. Bestalde, **61. artikuluko 4. zenbakiak** Administrazioko zerbitzu juridiko zentralak kide anitzeko gobernu-organoen idazkaritzan eta autonomia-erkidegoko-sektore publikoko erakundeen aholkularitza juridikoan jarduteko aukera esleitzen du. Manu horrek proiektuaren esparruarekin daukan lotura justifikatuta dago, administrazio orokorraren eta aipatu erakundeen arteko harreman-moduetako bati buruzkoa den neurrian. Baina, zerbitzu juridiko zentralak aipatzean, Administrazioko zerbitzu juridikoei eragiten dien erabaki bat ere hartzen du, eta, horri dagokionez, gogorarazi behar da orain dela gutxi Gobernuak onartu zuela eta Legebiltzarrerara bidali zela Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridikoa antolatzeari buruzko Legearen proiektua, non Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Zentralaren eginkizunak zedarritzatzen baitira.
200. Batzordeak uste du zerbitzu juridikoen antolaketa-aukera hori aipatu proiektuan jaso beharko litzatekeela, betiere, bere izapide-egoeraren arabera, hori posible izanez gero.




Ezinezkoa bada bere berehalako onarpenagatik, aztertu beharko litzateke testu hori xedapen gehigarri baten bidez aldatzeko aukera.

201. Bestalde, **62. artikulua** erantzukizun-araubide bat xedatzen du autonomia-erkidegoko Administrazioak izendatutako merkataritza-sozietate publikoetako administrazio-kontseiluetako kideez den bezainbatean. Artikuluak argitu beharreko zenbait kontu planteatzen ditu.
202. Lehen hau da: ez da ikusten kanpo- eta barne-erantzukizuneko araubidea aipatzeko arrazoiak edo beharra, autonomia-erkidegoko sektore publikoko sozietateetako administrazio-kontseiluetako kideei soilik zuzenduta, sektore publiko horretako gainerako erakundeak bazter utzita.
203. Bigarrena: enplegatu publikoak baino ez ditu aipatzen. Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuarena den apirilaren 12ko 7/2007 Legean xedatuari bagagozkio —sailkapena Euskadiko enplegu publikoari buruzko lege-aurreproiektuan ere jasotzen da—, hau da enplegatu publikoen sailkapena: a) karrerako funtzionarioak, b) bitarteko funtzionarioak, c) lan-kontratuko langileak, finkoak izan, kontratu mugagabekoak izan edo aldi baterakoak izan, eta d) behin-behineko langileak. Hortaz, goi-kargudunak ez daude sartuta, eta, horregatik, edo pentsatzen da kargudun horiek administrazio-kontseilu bateko kide izendatzeko aukera baztertzea —gaur egun gertatzen ez dena—, edo beraien erantzukizun-araubidea desberdintzat jotzen da. Nolanahi ere, argitu beharra dago.
204. Bestalde, 2. zenbakiko errepikapen-araubideari dagokionez, badirudi Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 145. artikuluan aurreikusitakoaren aplikazio berezi bat dela, baina espedienteak ematen duen informazio urriak ez du hori berresteko aukerarik ematen. Hala ere, ohartarazi behar dugu aipatu artikulua hori oinarritzotzat jota dagoela, eta administrazio publikoetako langileei nahiz agintariei buruzkoa dela.
205. Nolanahi ere, argiago idatzi beharko litzateke, guztiz baztertzeko ulertu ahal izatea horren bidez kolektibo horretako kideen beste erantzukizun-iturri bat ezarri nahi dela; izan ere, arau-dentsitatea nahikoa ez izateaz gain, juridikoki ere ez litzateke bideragarria izango. Hitz batean, uste dugu artikulua honetan aurreikusitakoak ez duela aldatu nahi enplegatu publikoen diziplina-araubidea, ez eta administrazio publikoen zerbitzuko agintarien eta langileen ondare-erantzukizunaren eskakizun-araubidea ere, eta are gutxiago merkataritza-legedian administrazioaileentzat jasotako erantzukizunarena. Baina, nolanahi ere, kontu hori argitu egin beharko litzateke.



Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren funtzionamendua:

206. Aurreproiektuaren **V. titulua** (sektore publikoaren funtzionamenduari buruzkoa), Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuari dagokionez, murriztuta mantentzen da bere edukian, politika publikoen ebaluazioari buruzko zatian, eta zati hori, Legebiltzarrak eskatutako banantze-prozesuan, euskal sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onari buruzko legearen aurreproiektuan kokatu da (izapidetze paraleloa dauka). Arau honetan, soil-soilik mantentzen da kudeaketa publiko aurreratua egiteko sistemen ezarpenari buruzko artikulua bat, hala nola antolaketa-unitateen kudeaketaren ebaluazioari buruzko beste bat; bi-biek irizpide eta mandatu orokorrak biltzen dituzte, arauak dituen xedeen araberakoak.
207. Herritarrek EAEko administrazio publikoarekiko harremanean dituzten eskubideak eta betebeharrak **65. artikuluan** jasotzen dira, ia-ia Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuan aurreikusi bezala. Proiektu horri buruz esan genuen bezala, hasieran adierazten bada ere eskubide horiek Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoa edo sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiez den bezainbatean eska daitezkeela, 4. zenbakiko erregelak baztertu egiten ditu zuzenbide pribatuko harremanak izatea honako hauen artean: herritarrak eta horrelako erakundeak —pribatuak—. Berrito ere diogu ezen, bere hasierako adierazpen zabala gorabehera, herritarren eta pertsonifikazio modua zuzenbide pribatukoa duten sektore publikoko erakundeen arteko harremanak ez liratekeela babestuta geratuko artikulua honetako eskubideen bidez.
208. Orain, laguntzeko asmoz, gehitzen dugu salbueste orokor horretan ñabardurak egin litezkeela. Zuzenbide pribatuaren ildoak askotan justifika badezake ere salbueste hori artikulua honetan jasotzen diren eskubideetako batzuez den bezainbatean, ez du ematen haiek guztiak baztertu behar direnik kasu guztietan, azken batean ohikoa delako Administrazioak zuzenbide pribatuak era instrumentalean eskainitako teknikak erabiltzera baino ez jotzea.
209. Egoera horri erreparatzeko ordezkio aukera posible bat izango litzateke eskubide horien aplikazioa baztertzea soil-soilik bateraezinak badira erakunde horiekin izandako zuzenbide pribatuko harremanekin.
210. Betebeharrei buruz adierazitakoa ere gogorarazi behar dugu. Administrazio-prozeduran konponduta dago dokumentuak aurkezteko betebeharra, 5. zenbakiko d) letran adierazia, baina ez kontsiderazio horrekin. Herritarrek ez badituzte betetzen prozedura baterako ezinbestekoak diren izapideak, ordenamenduak —zehazki, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 76. artikulua— ez-betetze horren ondorioak xedatuta dauzka, eta ezin da




lotu betebeharrak bat ez betetzetik erator daitezkeen beste edozein ondorio. Baina Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 40. artikuluan aurreikusitako agertzeko betebeharrak erants liteke, hala aurreikusita badago lege-mailako arau batean.

211. Berritasun moduan, beste betebeharrak bat agertzen da f) letran; Administrazioetik jakinarazpenetan eta harreman elektronikoetan lortzen den informazioaren erabilerarekin dauka zerikusia, baina idazkera nahasgarri eta mehatxagarri samarra da. Nahasgarria, hartzailea nahasi egiten delako, betebeharrak eta obligazioak nahastearen ondorioz. Mehatxagarria, badirudielako “erabilera ona” aipatzeak beste balorazio bat gehitzen diola datu pertsonalen babesari edo, hala egokituz gero, jabetza intelektual edo industrialari buruzko arauak aplikatzeko ondoriozkoari. Bestalde, ez da arrazoirik ikusten betebeharrean desberdintasunak ezartzeko Administrazioak emandako informazioaren erabileraz den bezainbatean, horretarako informazio hori komunikazio elektronikoaren bidez eman den ala ez kontuan hartuta.


Administrazio elektronikoa:

212. Administrazio elektronikorako eta herritarrentzako ardurarako kapitulu berezi bat mantentzen da.
213. Sarrerako artikulua berri bat jaso ondoren (68. artikulua), berriz ere aipatzen dira administrazio elektronikoaren printzipioak (69. artikulua), erreferentzia gisa Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 4. artikuluan aurreikusitakoa hartuta, eta 69. artikulua hori, 70.aren batera, zeinak Administrazio elektronikoaren arloko eskubideak eta betebeharrak xedatzen baititu, aplikatzekoa da EAEko sektore publiko osoan.
214. Aipatu **70. artikulua** horrek, egia esan, eskubideak baino ez ditu jasotzen, eta ez betebeharrak; beraz, artikulua izena egokitu egin beharko litzateke. Eskubide horiek oinarritzko araudian aurreikusitakoak islatzen dituzte, salbu eta espediente batean dauden dokumentu elektronikoak formatu elektronikoan kontserbatzeko dagokiona, zeina Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko Legearen 6. artikuluan aurreikusita baitago, aurreproiektuan jasota egon gabe. Nahiz eta 4. zenbakian oinarritzko araudirako igortze orokor bat jaso, eta horrek gai honetan edozein ahanztura konponduko lukeen arren, badirudi logikoa dela eskubide hori ere sartzea 2. zenbakian.
215. Era berean, bereziki erreparatu behar diogu 2. zenbakiaren g) letran jasotako eskubideari. Izan ere, administrazio publikoen esku dauden datuak eta dokumentuak ez aurkezteko eskubidea jasotzen da letra horretan, indarreko araudiaren arabera administrazio horiek datu-dokumentuok dauzkan — Administrazioetik — eskura



ditzaketen neurrian. Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko Legearen testua, eskubide honi dagokionez, osoagoa da, eta aurreproiektuan xedatuari gehitzen dio eskubide hori gauzatu ahal izango dela, betiere, datu pertsonalen kasuan, interesdunen adostasuna izanez gero Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoak xedatu moduan, edo lege-mailako arau batek hala erabakiz gero, galdatutako datu eta dokumentuei aplikatzeko araudiaren arabera murrizketak egon ezean.

216. Omisioak zerikusia izan dezake **73.1 artikuluan** xedatuarekin, administrazio-izapidea sinplifikatzeari dagokionez. Kontu hori, Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuko bere ondoko aurrekaria bezala, zalantzan jarri du Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, argudiatuta ezen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 35.f) artikulua eta Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko Legearen 6.2.b) artikulua administrazio jardulearen eskuetan dauden dokumentuak ez aurkezteko eskubidea aitortzen dutenean, eskubide bat aitortzen ari dela, baina ez betebeharrak bada, eta, horregatik, ezin dela ezabatu, aurreproiektuan jasotako modu orokorrean behintzat, baldintza hori egiaztatzen duena herritarra bera izateko aukera.
217. Bestalde, 1. zenbakia horretan Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuak 75.1 artikuluan xedatua hartu da abiapuntu, baina artikulua horretan aurreikusitako baldintzei gehituta alderdi batek eskatuta hasi behar dela prozedura; hau da, interesdunaren eskari bidez. Gure 120/2014 Irizpenean, adierazi genuen Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuaren 75.1 artikuluan emandako idazkeran, zeukan maila zeukala, baztertu egin behar zela administrazioen artean adostasunik gabe datuak lagatzeko gaitze automatikoa, horrek ezabatu egingo zuelako Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 11. artikulua orokorrean eskatutako adostasuna, kontsiderazio nagusiki etniko bat oinarri hartuta, halakoa baita administrazioen arteko elkarreragingarritasunerako zerbitzuetako erabilgarritasuna. Kasu horretan Konstituzio Auzitegiak 2012ko maiatzaren 7an emandako 96/2012 epaitik sortutako doktrina aipatu genuen.
218. Prozesua interesdunak eskatuta hasteko eskakizuna, zeina egungo aurreproiektuan jasota baitago, faktore garrantzitsutzat har daiteke datuen lagapena justifikatuta dagoen edo neurri proportzionatua den esateko, ez baita ausarkeria pentsatzea prozedura arintzean eta Administrazioaren eskuetan dauden dokumentuak edo datuak aurkeztea eragoztean interesduna bera izango dela onuradun nagusia.
219. Aurreko hori, ekimenaren mailarekin eta bereziki babestutako datuen berariazko baztertzearrekin batera, bide interesgarria izan daiteke administrazioen arteko datu-transferentzia bitarteko elektronikoen bidez azkartzeko. Hala ere, kontuan hartuta




ezin konta ahala egoera izan daitezkeela, ezin da baztertu inoiz edo bana-banako balorazio bat egin behar izatea.

220. Beste ikuspuntu batetik, eta laguntzeko asmoz, komeni da beste kontu batez ohartaraztea ez baitzen jaso gure 120/2014 Irizpenean eta arauaren aplikazio-esparruarekin zerikusia baitu. Administrazio publikoen esku dauden datuei eta dokumentuei buruzkoa da 73.1 artikulua, bai eta administrazio publikoek beren eskumenen esparruan dauzkaten funtzioak betetzeari buruzkoa ere, baina aurreproiektuaren zati horren aplikazio-esparrua autonomia-erkidegoko sektore publikora mugatzen da, eta hori arazotsua izan liteke, autonomia-erkidegoko administrazioen arteko datu-lagapenari aplikatu nahi izanez gero.
221. Bestalde, ez da ameskeria kontu hori EAEko gainerako administrazioei aplikatzea, eta, hain zuzen ere, ekimenaren maila izan lezake lagungarri. Gai honetan esku hartzea, halaber, babestuta egongo litzateke, hala egokituz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.2 artikuluan; izan ere, titulu hori ere nagusitzat jo dugu gure 24/2003 Irizpenean, Legebiltzarrak onartu ondoren Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea izango zen aurreproiektuaz den bezainbatean.
222. Nolanahi ere, artikuluaen aplikazio-esparrua zabaltzeak aurretiko gogoeta bat eskatuko luke, baina ez du ematen gertatu denik araua prestatu bitartean, eta batzorde honek gogoeta hori proposatzen du kontuan hartua izateko edo eztabaidatzeko.

Sektore publikoaren funtzionamenduko hizkuntzak:

223. Hizkuntzen koofizialtasuna zuzenean ondorioztatzen da Espainiako Konstituzioaren 3.2 artikulutik, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 6. artikulutik, bi hizkuntzen erabilera bermatzea esleitzen dielako autonomia-erkidegoko erakunde erkideei, Euskadiko aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuta eta hizkuntzon ofizialtasuna araututa.
224. Dударik ez dago, beraz, gai honek aurreproiektuan duen kokapen egokiaz, ez eta erakunde erkideen eskumenaz ere, zertarako eta koofizialtasunaren norainokoa zehazteko autonomia-erkidegoko Administrazioaren esparruan bezala sektore publikoarenean ere.
225. Hala ere, lege-aurreproiektuaren arauketan, komeni da bi kontutan denbora pixka bat ematea.
226. Lehendabizi, 78. artikulua, zeina xedapenei eta jakinarazpenei buruzkoa baita, 1. zenbakian esaten du Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan egiten diren



mota guztietako dokumentuak eta jakinarazpenak bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzi ahal izango direla inolako bereizkuntzarik egin gabe, eta ez dela beharrezkoa izango haiek beste hizkuntza ofizialera itzultzea, barne-egintzak badira, barne-harremanak, edo autonomia-erkidegoan kokatuta dauden administrazio edo erakunde publikoen artekoak.

227. Barne-jarduera izanda, eta, hala egokituz gero, administrazioen artekoa, ez da inolako eragozpenik ikusten euskara eta gaztelania erabil daitezen, euskararen erabilera normalizatzeko, itzulpenik egin behar gabe, autonomia-erkidegoan kokatuta dauden administrazioen edo erakunde publikoen barruan edo artean, guzti-guztiek bere egin behar dutelako euskararen koofizialtasuna.
228. Konstituzio Auzitegiak ekainaren 26ko 82/1986 Epaian Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeaz den bezainbatean esan zuen bezala:

“(...) autonomia-erkidegoak koofizialtasunaren norainokoa zehatz dezake, zuzen-zuzenean ondorioztatzen baita Konstituziotik eta Autonomia Estatutik, eta beraren kontzeptuari atxikita baitago, eta Estatuko Administrazioari dagokio lege-arautze hura, organo propioei eragiten dien neurrian, praktikan jartzeko antolaketa zehatza. Konstituzioaren 3.2 artikulua kasuan kasuko espainiar hizkuntzen koofizialtasuna autonomia-erkidego jakin batzuetan ezartzeak ondorioak ditu botere publiko guztientzat erkidego horietan; lehenik eta behin, herritarren eskubidea da bi hizkuntzetako edozein erabiltzea kasuan kasuko erkidegoko edozein administrazioan eraginkortasun juridiko osoarekin. Erkidegoak, beraz, eskubide hori adieraz dezake, eta, era berean, eskubidearekin batera, eta hari lotuta, esan dezake erkidegoan kokatutako (estatuko, autonomiako eta tokian tokiko) botere publiko guztien betebeharra dela konstituzionalki aurreikusita eta estatutuaren bidez ezarrita dagoen elebitasun-egoerara egokitzea.”

229. Kanpo-harremanetan —herritarrekin— hizkuntza ofizialetako bat soilik erabiliz gero sortuko litzateke arazoa, edo erabilera hori arau-xedapen edo ebazpen batean gertatuz gero, baina hori behar bezala konponduta dago aurreproiektuan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legeak xedatuaren arabera, artikuluko 2. eta 3. zenbakietan.
230. Bestalde, **79. artikulua** espedienteetako hizkuntza aipatzen du, eta, kasu honetan, 2. zenbakian erabiltzen den adierazpideak, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak ohartarazten duen bezala, hitzez hitz jasotzen du Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legearen 6.2 artikuluko jatorrizko testua, baina




testu hori Konstituzio Auzitegiak deuseztatu zuen, ekainaren 26ko 82/1986 Epaia-
ren bidez, uste baitzuen ez zuela behar bezain ongi zaintzen partikularrek informazioa nahi
duten hizkuntzan jasotzeko duten eskubidea.

231. Aurreko horren arabera, ados jartzen ez badira espedientean esku hartzen duten
pertsonek, espediente bultzatu duen pertsonak aukeratzen duten hizkuntza ofiziala
erabiliko da. Hala ere, interesdunek eskubidea izango dute informazioa nahi duten
hizkuntza ofizialean jasotzeko.
232. Kontuan hartuta aurreproiektuak hitzez hitz jasotzen duela Euskararen Erabilera
Normalizatzeko Legeko testu deuseztatu hori, Batzordeak, prebentzio gisa,
komenigarritzat jotzen du Auzitegiak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legearen
6.2 artikuluko bigarren tartekia deuseztatze emandako argudioak ere jasotzea.

“Hizpide dugun 6. artikuluko 2. zenbakiko bigarren tartekian, aurreikusten da ezen,
espedientean dauden aldean artean adostasunik egon ezean, espediente bultzatu
duen pertsonak erabakitakoa erabili beharko dela espedientean. Manu hau xedatzen
duen babesa gorabehera, hau da, aldeek informazioa nahi duten hizkuntzan
jasotzeko duten eskubideari kalte egin gabe aplikatu behar delako babesa, artiku-
luko 1. zenbakian herritarrei nahi duten hizkuntza ofizialean kasu egiteko
aitortutako eskubidearen salbuespena da, desadostasuna egonez gero espediente
bultzatu zuen pertsonak aukeratutako hizkuntza ez den beste bat erabili ahal izango
delako bertan. Horrenbestez, horrek berekin ekarriko luke, alde batetik, aldean
berdintasun-egoera haustea prozeduran, eta, bestetik, Konstituzioaren 3. artikuluan
xedatua urratzea, gaztelaniaren erabilera ofiziala baztertuz gero aldeetako batek
hautatutako hizkuntza izan arren, babes nahikoa ez izaki informazioa nahi den
hizkuntzan jasotzeko xedatutako eskubidea; horregatik, tarteki hori Konstituzioaren
aurkakotzat jotzen dugu.”


233. Hala ere, azter liteke Auzitegiak arlo honetan duen doktrinaren bilakaerak aukera
emango lukeen ala ez gaur egun gai honen interpretazio egokia egiteko, bestela
idatzita egonez gero. 2010eko ekainaren 28ko 31/2010 Epaia-
ren ildotik posibila bat ireki zuen Administrazioaren eta partikularren arteko harremanez den bezainbatean:
“betiere mekanismo egokiak prestatuz gero, herritarrek jakinarazpen horiek gaztelaniaz jasotzeko
duten eskubidea benetan gauzatu ahal izateko, Administrazio publikoarekin dauzkaten
harremanetan subjektu aktiboaren egoera egotea eragin dezakeen karga edo betebeharrak bat ekar-
diezaiekeen inolako formalitate edo baldintzarik gabe”.
234. Tesi hori ontzat jotzeko, ordea, gutxienez prebentzioak gomendatuko luke idatzera
Konstituzio Auzitegiak esan duenera egokitzea, eta, adibidez, adieraztea ezen,



adostasunik egon ezean, espedientea edo prozedura sustatu duen pertsonak nahi duena erabiliko dela, baztertu gabe Administrazioak mekanismo egokiak prestatzea, prozeduran esku hartzen duten gainerako pertsonen hizkuntza-eskubidea benetan gauzatu ahal izateko, espedientearen duten egoeran karga edo betebeharrak bat ekar diezaikekeen inolako formalitate edo baldintzarik gabe.

C) Legegintza-teknikari buruzko beste ohar batzuk:

- 235. Aurreproiektuaren edukiaren azterketan legegintza-teknikaz egindako oharrez gain, honako hauek ere egin daitezke:
- 236. Hasteko, uste dugu ezen, kontuan hartuta aurreproiektuaren edukia zabala eta askotarikoa dela eta beraren transmisioa eta aplikazioa errazteko, onuragarria litzatekeela aurkibidea jartzea.
- 237. Era berean, testua berriz aztertu behar da lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko (eta Gobernu Kontseiluak 1993ko martxoaren 23an egindako bilkuran onartutako) irizpideetako hirugarrenean artikulua banatzeko jasotako arauak betetzeko.
- 238. Bestalde, gogorarazten da arauak osorik aipatu behar direla daukaten izen ofizialaren arabera (adibidez, 36.1 artikulua).
- 239. 18.8 artikuluan, partzuergoei buruzko aipamena osatu egin beharko litzateke, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoak aipatuta.
- 240. Kudeaketa bateratuko zentroei buruzko artikuluan, 30.enean, beste paragrafo batean bereizi beharko litzateke prozesuaren definizioa (1. zenbakia). Bestalde, 5. zenbakiak zentro horien aldeko iritzia ematen du, baina ez da beharrezkoa, eta, neurri batean, bateraezina da legearen agindu-izaerarekin. Hala ere, daukan mezuari eutsi nahi bazaio, 1. zenbakian egon behar luke, bertan zehazten baitira zentro horiek.
- 241. 34. artikuluan, 6. zenbakia aldatu eta 5 digituarekin zenbakitu behar da.
- 242. 41.3.a) artikuluan, “lege honetan araututako gainerako erakundeak” aipamena osatu egin behar da honako hau aipatuta: “lege honetan araututako bere sektore publikoko gainerako erakundeak”.
- 243. 62.1 artikulua hasierako zatian, “le” izenordaina kendu behar da. Era berean, artikuluko 2. zenbakian doloa eta errua arteko “edo” juntagailua kendu behar da.



ONDORIOA

Irizpen honen mamian egindako oharrek aintzakotzat hartuta, Batzordeak emandako irizpenaren arabera, Gobernu Kontseiluari aurkeztu ahal izango zaio aipatutako lege-aurreproiektua, onespena eman dezan.

Eta hala ziurtatzen dugu, Gasteizen, 2015eko irailaren 28an, jakin eta kontuan har dadin. Era berean, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2. artikulua xedatzen duen betebeharra gogorarazi nahi dugu: azkenean onartzen den xedapen edo ebazpena Batzordeari jakinarazi behar zaio, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren antolamendu eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren 34. artikulua xedatzen duen moduan eta epean.

O. E.:

Jesús María Alonso Quilchano
Idazkaria

Sabino Torre Díez,
Batzordeburua